

37



ARGIA

16

12

54

113

GAZTEAK ETA SARE SOZIALAK

Identitatea eraikitzeko kode berriak

24-29. orriak

#2.804 | 2022/12/11 | 4,00 €



***"Akelarrea gezur
hutsa da, aker larrea
erabiltzen zuten"***

14 | JUAINAS PAUL ARZAK



***"Mundu mailako
gerra baten
hasieran gaude"***

30 | RAÚL SÁNCHEZ CEDILLO



***Bost ibilbide
Durangoko Azokan
ez galtzeko***

44 | KULTURA



SENDABELAR BARATZEA

Garbiñe Larrearen liburu berria

Sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.

Hasberrientzat zaintzen lan handirik emango ez diguten hamabi sendabelarren baliabide terapeutiko, kosmetiko eta gastronomikoak ekarri ditugu orri hauetara.

Izan ere, geure beharretara egokitzen diren sendabelarrak landuz gero, osasuntsu egoteko behar ditugun erremedioak presta ditzakegu.

Sendabelar baratzea lur sail batean zein etxeko lorontzian egin dezakegu.

Orrialde kop.: 40 **Neurria:** 22 cm (diametroa)

Prezioa 14,00 €

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **TRILOKS**

Iritziak

- 19 | MIKEL ZURBANO
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | ITZIAR MORENO
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | AINHOA AZURMENDI

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


DANI BLANCO

14 | **INKISIZIOAZ ETA SOGIN EHIZAZ, JUAINAS PAUL ARZAK**

Azken 53 urteetan agiriak arakatzuz Nafarroan izan ziren sorginkeria prozesuak sakon aztertu ditu historialari honek. Atera dituen ondorioez galdetu dio Reyes IIintxetak. Besteak beste, nola joan zen Europan sukarra hedatzen eta nola baretu zen geroago.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Trantsizio ekologikoa geopolitikoa dela erakusten digu Ukrainako gerrak

Jenofa Berhokoirigoin

24 | GIZARTEA | GAZTEAK ETA SAREA

Erakusleihu digitalean eta hari begira haztearen berezitasunak

Jon Torner

30 | INAZIOARTEA | RAUL SÁNCHEZ CEDILLO

“Ukrainako gerra gelditu behar da, nahiz eta lurraldea galdu”

Xabier Letona

34 | INAZIOARTEA

Hautsa finkatzen denean

Jon Garate

44 | KULTURA

Aldirietako trena. Helmuga: Durango

Gorka Bereziartua

52 | ARGÍ-KONTRA | IRIS MAPALY

“Migratzaileak behartuta gaude zaintza eta garbiketa lanetan aritzera”

Olaia L. Garaialde

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola, Lide Iraola,
Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Peru Iparragirre,
Urko Apaolaza, Xabier Letona,
Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gezurra ari du

Ekainaren 24an, ehunka pertsona saiatu ziren Maroko eta Melilla arteko muga artifiziaia zeharkatzen. Europan azken aldian gertatu den tragediarik handiena bilakatu zen: gutxienez 23 hildako, 70 desagertu, eta Guardia Zibilak (Marokoko poliziekin elkarlanean) 470 pertsona berehala kanporatu zituen. Egunotan, beste ikerketa batek erakutsi du gutxienez pertsona bat, Aziz Yakoub, Espainiako jurisprudentziaren menpeko lurretan hil zela, eta Poliziak laguntza ukatu zietela behar zutenei. "Legalitatea errespetatuz egin zen guztia", dio Fernando Marlaska Barne ministro bilbotarrak. Bera bezalako epaileek milaka euskal herritarri egindako torturak ukatzeko darabilten patxada ziniko berarekin.

 Sudanetik Espainiako Estaturaino heldu zen pertsona bat, tragedia gertatu ondorengo egunean, Melillako migratzaileentzako atxikitze zentroan. **F. SENNA / AFP**

 **AXIER LOPEZ**



Eskola publikoa ardatz izango duen legea aldarrikatzeko greba egin dute EAEn

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

EAEko Hezkuntza Legearen aurreproiektua arbuizatzeko greba egin zuten azaroaren 30ean irakas-kuntza publikoan, aldarrikatzeko besteak beste eskola publikoa lehenetsi beharko lukeela legeak. Sentsibiltate ezberdinak elkartu ziren: deialdiarekin bat egin duten eragile batzuk kritikoak dira alderdi politikoek adostu zuten lege-akordioarekin; beste hainbatentzat akordioa ona da baina aurreproiektuak desitxuratu egin du, eta horregatik akordioan parte hartu zuten alderdi batzuk mobilizazioetan izan ziren.

“Publikoa, euskalduna eta propioa helburu. Hezkuntza lege aurreproiektu honi ez, legea langileekin erabaki” leloak hartu zituen kaleak ELA, LAB eta STEILAS sindikatuak deituriko lehen greba egun honetan (abenduaren 14an bigarren greba egun bat dago deituta). Batez beste, langileen %60ak egin zuen bat grebarekin, antolatzaileen arabera. Hezkuntza Sailaren arabera berriz, irakasleen %38,6 batu zen grebara.

Eskola publikoak legean izan behar duen rola eztabaida eta gatazka iturri izan da hasieratik, hainbat eragile kexu baita itunpeko sarea diru publikoz %100 finantzatzeko modua bilatu dela (Euskal Hezkuntza Zerbitzua delakoaren baitan) eta sare publikoari ez zaiola lehentasunik aitortzen, inbertsioan, baliabideetan edota eskolaratze planifikazioan.

Hezkuntza komunitatearen parte

bat kritiko agertu da legearen zimen-duak jartzeko pasa den martxoan EAJ, EH Bildu, IU-Elkarrekin Podemos eta PSEk adostutako hezkuntza akordioarekin. Esaterako, Euskal Hezkuntza Zerbitzua formularekin ados ez daudela eta egungo sistema duala (sare publikoa eta itunpekoa) betikotzeko eta blindatzeko formula dela diote Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak eta EHIGE Euskal Herriko guraso elkarteak, martxoko hezkuntza akordioak ez duela eskola publikoa sistemaren ardatz bihurtzeko benetako apusturik egiten.

Denek ere “funtsezko papera” aitortu diote sare publikoari. Horrek legearen azken testuan zein forma hartuko duen, hor dago gakoa

Akordioaren espiritua defendatzen duten baina aurreproiektuak espiritu hori desitxuratzeko duela salatu dutenak ere izan ziren grebako mobilizazioetan. Akordioan parte hartu zuten EH Bildu edo IU-Elkarrekin Podemoseko ordezkarien kasua da. Akordioan eskola publikoa indartzeko neurriak izan ba-

direla diote, baina aurreakordioak ez dituela jaso. Eta PSEk ere kritikatu du aurreakordio zirriborroan ez dela islatzen sare publikoaren lehentasuna. LAB sindikatuak ere, EH Bildurekin egindako bileraren ostean, greba baino egun bat lehenago adierazi zuen hezkuntza akordioa abiapuntu ona dela eta akordio horren garapen egoki bat egitea dela orain gakoa. Fokua aurreproiektuan jarri du baita ere Hezkuntza Plazara plataformak, Euskal Hezkuntza Zerbitzua formula benetan eraginkorra izan dadin zerbitzu horren baitan dauden ikastetxeen betebeharrak zehaztu behar direla aldarrikatuz.

Denek ere “funtsezko papera” aitortu diote sare publikoari. Horrek legearen azken testuan zein forma hartuko duen, hor dago gakoa.

Saltsa-maltsa honetan, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak esana zuen greba “prebentiboa” zela azaroaren 30ekoa, oraindik bidea duela egiteko legeak, eta akordioa sinatu zuten alderdien adierazpenei kasu egiten badiegu, aurretik bide luzea duela dirudi, zehaztasun handiagoa eta neurri gehiago eskatu baitizkiete legeari. Eragileen proposamenak jasota, aurreproiektuaren bigarren zirriborroa prestatzen ari da Eusko Jaurlaritza, eta Legebiltzarreko alderdien txanda izango da ondoren, testuari proposamenak eta zuzenketak egiteko.

ALDARRIKAPENAK

Hamar aldarrikapenetan laburtu dituzte eskaerak sindikatuak: publikoa ardatz izatea; segregazioari aurre egin eta gizarte kohesioa bermatzea; publikazio-marko eta araudi orokor eta adostua ezartzea; hezkuntza lege propioa izatea; inbertsio eta baliabide nahikoa izatea; euskara erdigunean jartzea; betebeharrak eta kontrol mekanismo zehatzak finkatzea; hezkuntza sistema osatzen duten langile guztien enplegua eta lan baldintza egokiak bermatzea; merkatuen interesen gidaritzatik eta enpresa pribatuen negozio esparrutik at egotea; eta hezkuntza lege parte-hartzailea izatea. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Poloetako zurrunbiloa



UXUE APAOLAZA LARREA

Moteltzen ari da, eta hala jarraitzen badu ezingo dio hai-ze hotz-hotzari han, Poloetan, eutsi, gugana iritsiko da ekialdeko piztia, Poloetako zurrunbiloa, Siberiatik.

Horrela hasten den edozein narraziok ematen du beldurra, etxean itxi eta ez ateratzeko tentazioa. Noizean behin horrela-ko kontzeptuak errepikatzen hasten gara aurpegi serioz, “ziklogenesi leherkor bat gertatzeko arriskua dago”, zer esaten ari garen jakin gabe. Hotza egingo duela, hori baino ez.

Klasean hainbat herrialdetako jendea elkartzen gara, eta “gaur zer eguraldi dago?” galderari erantzuten diogu. Inoiz ez gara ados jartzen eguna hotz ala bero dagoen. Ekuatore Gineakoari beti “hotz” iruditzen zaio, Ukraina aldekoari “bero”. Eta denok “hotz” esan genuen abenduaren 1ean, Ukrainakoak izan ezik, “bai zera, hori ez da hotza, Errusiako leku batzuetan zero azpitik hogeitaz gradura joan dira gaur eskolara”. Hainbat herriri buruz hitz egin digu, gasa ekoizten duen hainbat lekuri buruz, Errusia ederrari buruz... Ekuatore Gineako ikasleak esan du: “Han eskale izatea ezinezkoa izango da”. Eta hemen?

Poloetako zurrunbiloa entzun eta batzuk “ba pelikula eta mantatxoa” pentsatuko dugu. Mantatxoaren lekuan, berez, berogailua esan nahi dugu. Gasa. “Pelikula eta gasa”. Eta gure sosak horretan xahutuko ditugu. Eta pobrezia eroso-agoa izateko sailkapenetan galduko gara, “energia pobrezia” esaten. Eta irakurriko dugu, urtero bezala, “kausa naturalen ondorioz hil zen bart kutzazain automatiko batean lo egiten zuen gizona”. Eta beldur txikiagoa sentituko dugu “Poloetako zurrunbiloa hautsi da” entzunda baino. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Kultura

Loraldi berri Liburu eta Disko azokaren lehen edizioa egin da Urruñan, abenduaren 4an. Hogeitaz bat argitaletxe eta elkarteek hartu du parte, eta hainbat idazle eta musikari hurbildu dira beren lanak sinatzera. Urrunaga elkarteak antolatuta, Bertola elkarteak lagunduta.

Plateruena

Durango Plateruena berriak 2023an irekiko ditu ateak. Udalak hartu du Durango kafe antzokiaren ardura, eta kudeaketarako kultur mahai bat osatuko da. Euskalduntzea bultzatzea, herriko eragileentzako erreminta izatea eta euskarazko kultur gintzaren gune bilakatzea du helburu.

Kazetaritza

Berrian argitaratutako *Tonban ehortzirik* artikulu sortarengatik Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi du Miel A. Elustondok. Elustondok hiru asteetan behin egiten du ARGIA Jendeak ataleko elkarriketa. Finalisten artean ARGIAko Amaia Lekunberri ere bazegoen, anorexiari buruzko *Larrunagatik*.

EKONOMIA

Orain aurrekontuak, gero gerokoak



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Aurrekontuak matematika kontuak direla aldarrikatzen dutenen aurrean, alderdien proiektu, estrategia eta kultura politikoa ezagutzeko balio duen lehen mailako ariketa politikoa direla ikusi dugu berriro ere. Proposamen eta aldarrikapenak politika errealekara eramateko aukera ez ezik, begibistakoa da aurrekontuen momentuak berebiziko garrantzia duela estrategia politikoak bideratzeko eta elikatzeke.

Nafarroan, bertako instituzioen osaketa eta politikak tarte luzez zuzendu ditzakeen espazio politikoa sendotzen duen akordioa egin dute. Espainiako Estatuan, legealdia bukatzeko ez ezik bakoitzak bere etxean posizioa indartzeko aukerak eman dituen akordioak dira Madrilgoak; eta ez da gutxi, hango gobernuari segida emateko aukera bakarra egungo formula errepikatzea izango dela baitirudi. Gasteizen, osoko zuzenketen eztabaidan, ikusiko dugu gaur oposizioa direnak bihar gobernu izateko zein proposamen politiko duten esku artean. Ezkerreko alderdiek erakutsi dute badutela akordioak egiteko borondatea, gaitasuna eta ekimena; baita akordiorik gabeko agertokian jokatzeko prestutasuna ere.

Hortaz, estrategia politikoek eta diruak posible egin dituzten akordioak dira, ezkerreko alderdiak ardatz diren espaziotik zuzentzeko politika publikoak aurrera eramateko, korapiloz beteriko testuinguruan. Baina, kontuan hartuz Europako Batzordeak gastu publikoari ezarritako mugak eta kontrol zorrotzak momentuz –eta baldintzekin– eten egin direla, 2008ko politikek ez itzultzeko balio izango duten akordioak eta estrategiak ote diren... gero gerokoak. ●

ANALISIA



MONCLOAES

Pentsioen tranpa

URKO APAOLAZA AVILA

Espainiako Gizarte Segurantzako ministro José Luis Escrivá pentsio publikoen sistema aldatzeko proposamena egin du: pentsioak kalkulatzeko epea kotizatutako azken 25 urteak izan beharrean, azken 30ak izatea nahi du, baina horietatik 28 aukeratu ahal izango lituzke langileak, bi urte “okerrenak” kanpoan utzita. Gainera, soldata handieneko kotizazio oinarria zabaltzea ere proposatu du.

Escriváren arabera, urteak aukeratu ahal izateak mesede egiten die lan ibilbidean “hutsuneak” izan dituztenei, hala nola epe batez langabezian geratu direnei edo amatasunagatik murrizketak eskatu dituztenei. Espainiako Bankuak egin dako ikerketa batek dio, gainera, pentsio baxuenetan igoera suposatuko lukeela halako sistema batek –ikerketa 35 urte kalkulatu egin da, sei urte okerrenak kenduta–. Baina pentsioen gehiengoak murriztuko litzatekeela ere badio ikerketak, batez ere altuenak. Ikusteke dago, bestalde, lurraldeen arabera emaitza zein litzatekeen, kontuan izanik Hego Euskal Herrian batez besteko pentsioak beste erkidegotan baino altuagoak direla.

Sindikatuak ez dute begi onez ikusi ministroaren proposamena, eta Gobernu-ko bazkide den Podemos ere jadanik ezezkoa eman dio, ziur dutelako kalkulua urte gehiagorekin eginda pentsioa baxuagoa izango dela: “30 urtera zabaltzeak gogortu egiten du erretiro pentsioa lortzeko aukera”, adierazi du Yolanda Díaz Espainiako Lan ministroak.

Espainiako Gobernuari atzera kontaketa hasi zaio pentsioekin. Iaz pentsioetan eginako aldaketek –KPIaren arabera igotzea, adibidez– ez dute batere asebate Europako Batzordea, eta Escrivá honen nahierara egingako erreforma baten beharra dauka. Izan ere, europar mandatariei hitzeman zien –2021eko azaroan espresuki sinatu zuen– pentsioak kalkulatzeko urte kopurua zabalduko zuela. Zer dela eta egin zuen hori?

Next Generation diru funtsak jasotzeko Bruselak baldintza ugari jarri ditu, eta horiek bete ahala joango da “askatzen” dirua. Espainiako lan erreforma egin ostean, 12.000 milioi euro izan ziren, eta orain, beste zati bat jasotzeko baldintzetako bat da pentsioen sisteman gastu publikoa ez handitzea; murrizketak egitea alegia.

Sindikatu eta eragile ugari aspalditik ari dira ohartarazten Europako funtsak badutela letra txikia, eta batzuek aukera bezala ikusten dutena, egitan etorkizuneko belaunaldientzako zorra izango dela. Pentsioekin ezin garbiago ikusten da tranpa hori. ●

%35

Elikagaien %35etan pestiziden hondarrak atzeman ditu Ekologistak Martxan elkartearen ikerketa batek, Espainiako Estatuan; gehienbat frutan, barazkietan eta arrainean. Debekatutako substantzia toxikoak baimentzea egotzi diete erakundeei.

400

kilometroko goi tentsioko argindar linea batek –etengabe 400.000 voltek korrontea izango duenak– Gatika (Bizkaia) eta Cubnezais (Okzitania) herriak lotuko ditu, itsaspetik eta lurpetik.

%70

dira euskara menperatzen duten hernaniarrak, eta horregatik Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartuko da. Asteasurenarekin batera sartuko da eta 96 izango dira udalerri euskaldunak.

“Hizkuntzaren auzia gizartearen lehentasun bihurtzea eta aliantzetan sakontzea ditut helburu”

IDURRE ESKISABEL

Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi berria

2022-11-22



“DITUEN EGITURAZKO ARAZO LARRIEI PREMIAZ HEL DIEZAIELA ESKATZEN DIOGU OSAKIDETZARI”

SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT sindikatuak

2022-12-02

“Ama bihurtzen garen emakumeak gehiago gara duela mende bat baino”

OIHANA LLORENTE

Parean elkarteko kide da Llorente. Amatasuna feminismotik ikerketa egin du elkartek.

HALA BEDI (2022-11-30)



Atzerapausoa Japonian: genero bereko ezkontzak ez dira legezko

MARIA ORTEGA ZUBIATE

Tokioko epai batek asteazkenean berretsi du ezkontza horiek debekatzea ez dela legez kanpoko, ezkontzaren definizioan ez baitira sartzen. G7ko herrialde bakarra da genero berekoen arteko ezkontzak onartzen ez dituen.

Japonian legezkota da genero bereko pertsonen arteko ezkontzak debekatzea; horixe berretsi berri du Tokioko epaimahai batek. Bigarrenaz eman dute horrelako epai bat herrialdean, 2022ko ekainean ere horixe ebatzi baitzuen beste epaimahai batek. Epaiak zortzi pertsonaren salaketan du jatorria, genero berekoen arteko ezkontza galarazi baitzieten; konstituzioaren aurkakoa zela salatu zuten. Bi epaiak, ordea, ondorioztatu dute Japoniako konstituzioak ez dituela urratzen ezkontideen eskubideak, konstituzioak ezkontza "bi sexuen arteko batasun" gisa definitzen duela argudiatuta.

Genero berekoen arteko ezkontzak ez onartzea ez da legez kontrakoa, legeak berak ez dituelako ezkontza bezala definitzen. Horixe da Japonian gertatu dena. Kasuak arnasa luzea izan du, 2019an jarri baitzuten zortzi ezkontideek salaketa, eta 2021eko martxoan Sapporoko auzitegiak beraien alde egin zuen. Baina beste bi epaiak arrazoiak kendu diote. Izan ere, Japonian, ezkontzaren definizioaren barruan daude beste zenbait kontu, ez soilik ezkontza bera: oinordekotza, fiskaltza kontuak, seme-alaben zaintza eta beste. Genero bereko bikoteen kontuan, gobernuak ulertzen du ez direla bermatzen elementu horiek; eta, beraz, ez ditu ezkontza gisa ulertzen. Gobernuak ez du testua moldatzeko asmorik adierazi.

Epaiak atzerapausoa dakar Japoniako eskubideen zerrendara, are, atzerakoi irudia bereganatu lezake: G7ko –Alemania, Kanada, AEB, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Japoniak osatzen dute– estatu bakarra da ezkontza horiek onartzen ez dituen. Era berean, epaiak badakar beste kontraesan bat Japoniak nazioartean zabaldu duen irudiarekiko: herrialdeak fama aski zabaldu du errespetuan oinarritutako kulturarena, baina kontserbadurismoak pisu handia izaten jarraitzen du. ●

NAZIOARTEA



Paramilitarismoaren presioak bizirik jarraitzen du Ipar Irlandan

AXIER LOPEZ

24 urte baino gehiago igaro dira Erresuma Batuko eta Irlandako gobernuek eta Ipar Irlandako alderdi politiko gehienek, unionista zein errepublikar, Ostiral Santuko ituna sinatu zutenetik. Akordioak inplementatzen joan dira, eztabaida eta tira-bira askorekin, horren erakusgarri da egun DUP alderdiak adostutakoa urratu eta eragin duen blokeo instituzionala. Baina borroka politiko-instituzionaletik harago, eguneroko bizitzak agerian uzten du bizilagunen artean urte luzez izandako indarkeria eta bazterketa ez direla egun batetik bestera desagertzen. Joan den astean, Ipar Irlandako etxebizitzetan paramilitarismoak eragindako segregazioaren inguruko datuak argitaratu dituzte eta emaitzak deigarriak dira.

Justizia Administrazioiko Batzordea talde independentea da eta haren zeregina da erakunde publikoen jardunak giza eskubideen nazioarteko estandarrekin bat egin dezan zaintzea. Daniel Holder da zuzendariaren ondokoa eta BBCrekin gaiari buruzko adierazpenak egin ditu: "Oraindik ere paramilitarren kontrol eta hertsadurak asko baldintzatzen du etxebizitza, Ipar Irlandako politika publikoen arloetako bat dena". Larderia eta mehatxuei aurre egin behar izaten dien jendearekin lotuta dago, baita banderak edo bestelako elementuak etxeetan paratzen dituzten paramilitarrek ere,

"arrazakeriak mugituta edo sektarioki beldurrazteko helburua dutenak".

Holderrek adierazi du hori sarritan gertatzen dela etxebizitza partekatuen promozio berrietan, eta gaineratu du eremu jakin batzuetan intimidazioaren bitartez herritarrak beren etxeetatik kanporatzeko egiazko praktika dagoela. Azaldu duenez, kasu horiek loialistek kontrolatutako auzoetan gertatzen dira gehienbat, oraindik ere hertsadurak bizirik jarraitzen duen tokietan. Talde disidente errepublikarrak talde loialistak baino "askoz baztertuago daudela" gaineratu du. "Ipar Irlandako gizartean dagoen arrazakeria eta sektarismo guztia ez dute paramilitarrek eragiten, baina zati handi bat bai. Ipar Irlandan eraso arrazista baten biktima izateko arriskua 31tik bat da [gorroto delituen azken berrikuspenaren arabera] eta kopuru hori oso handia da". Delitu arrazista asko paramilitarismo loialistarekin lotuta badago ere, horri aurre egiteko estrategia publikorik ez dagoela salatu du. Ipar Irlandako Etxebizitza Exekutiboaren datuen arabera, 2.000 pertsona/familia baino gehiagok alde egin behar izan du bere etxetik 2012tik 2017ra, larderiak edota mehatxuek eraginda.

Holderrek argi adierazi du: "Ipar Irlanda lehen baino askoz leku bake-tsua da, baina hori oso ezberdina da segun eta zein tokitan/auzotan bizi zaren". ●

Heriotzak



Pilar Iparragirre

Kazetaria eta idazlea

ERREDAKZIOA

Pilar Iparragirre Lazkano (Idiazabal, 1952) kazetari eta idazlea hil da. *Zeruko Argian* aritu zen, eta baita haren ondorengotza jaso zuen ARGIA ere. *Egin* egunkarian eta *Punto y hora* aldizkarian egin zuen lan, halaber. "Euskal kazetari-tzan puntako izena", Xabier Mendiguren editorearen hitzetan, eta "euskal emakume kazetarien aitzindaria", *Gara* egunkari-ko Amaia Ereñagaren hitzetan.

Literaturazale porrokatua, 1988an Elkar argitaletxeak argitaratutako *Hile-rriko jolasak* eleberria idatzi zuen, eta

1994an *Felix Likiniano. Ezina ekinez egi-na* (Txalaparta) biografia. *Egin* egunkari-ko Politika eta Iritzi sailetan aritu zen, Baltasar Garzón epailearen aginduz Guardia Zibilak egunkaria 1998an indarrez itxi zuen arte. 1998an, era berean, *Deportación. El mal menor* (Txalaparta) saiakera argitaratu zuen. Beste lan batzuk ere egin zituen. Esaterako, haur literaturako zenbait liburu itzuli zituen 1980ko hamarkadan.

Ordutik aurrera askotariko elkarriketak eta liburu kritikak idatzi zituen

ARGIA, besteak beste. Sortzez goierri-tarra, Donostiako Parte Zaharrean bizi zen Iparragirre, auzoarekin harreman handia zuen eta bertako egitasmo askotan hartu zuen parte. "Auzoaren irudiaren parte bat zen", *Irutxuloko Hitzak* jaso dituen Joseba Álvarez auzokidearen hitzetan. Iparragirreraren argazki gutxi dago interneten. Bere heriotzaren berri emateko zabaldu den argazkia Parte Zaharreko auzokide eta lagun Jonpa Albisuren omenezko egitasmo bati babesa adierazteko egin zuen.

Jakes Abeberry

Enbata mugimenduaren sortzailea



JENOFA BERHOKOIRGOIN RADIO FRANCE / NOGHES

92 urte zituela eman du azken hatsa miarritzarrak, Ipar Euskal Herriko bizi politiko, ekonomiko eta kulturalen eskaintza oparoa utziz. Jean-René Etxegarai Euskal Hirigune Elkargoko presidentek zabaldu zuen berria.

Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalea gaztea da -60 urte- eta oinarrian ditugunak badoaz, garaiko giroa sentitzeko balio digun lehen pertsona haiekin eramanez. "Lehenbiziko Aberri Eguna -pribatua- ospatu genuen Itsasun 1962ko Bazko astelehenez. Hitzaldi bana egin genuen Ximun Haranek, Jakes Abeberrryk eta nik. Eztabaidan agertu zen mugimendu baten xedea eta 1963ko Aberri Egun fundatzailea prestatzen pasa genuen urtea", kontatzen zion ARGIAri Jean-Louis Davantek 2020ko maiatzean. Abeberry hori zendu da azaroaren 30 honetan, 92 urte zituela, eta adinean gora egin arte bizi politikoa-koenik. Besteak beste, berriki arte ira-

kurri ahal izan ditugu bere editorialak *Enbata* aldizkari politikoan.

Mugimenduak plazan emandako lehen urratsa izan zen 1963ko Itsasuko Agiri horretatik sortuko ziren hainbat egitura politikoen oinarrian egondakoa izan da miarritzar politikaria. Abertzaleen Batasuna alderdian eta ondotik EH Bai koalizioan inplikatu da berriki arte. Azken hilabeteetan ttipitu zuen bere inplikazioa, adina baino gehiago eritasun bati aurre egin beharragatik.

Enbata mugimenduaren sortzaileen artean egondakoa, Izan izeneko kolektibo abertzalean ere inplikatu zen 1980ko hamarkadatik aitzina, helburutzat hartuz besteak beste Ipar Euskal Herriarentzako garapen ekonomikoa. Hainbat tresna etorriko ziren hortik: Sokoa kooperatiba, lekuko garapen ekonomikoaren alde Hemen elkarte edota Herrikoa bankuen saretik kanpo den inbertsiorako kapital tresna.

Hauteskundearen esparruan sinesten zuela, 1980ko hamarkadan bide hori garatzearen alde aritu zen eta 1983an aurkeztu zen lehen aldikoz Jean-Pierre Destrade sozialistaren zerrendan. 1991n gehiengoan kokatzen lortu zuen, beste abertzale batzuekin, baina ezkerrean kokatzen ez zen Didier Borotrarekin. 1977tik 1991ra boterean egondako Bernard Marie eskuindarrari hartu zioten lekua hauteskunde horietan. Hamazazpi urtez bigarren axuanta izan zen.

Aliantzen estrategiaren alde egin izanagatik zein askapen borrokan borroka armatua erabiltzearen hautua gaitzetsi izanagatik, kritikak ere jaso zituen Abeberrryk 1990 eta 2000 hamarkada horietan.

Duela bi urte, bere 90 urteekin, Biarritz Nouvelle Vague Verte et Solidaire - Olatu Berria hautagaitzan -abertzale eta ekologista ezkertiarrez osaturiko zerrenda- aurkeztu zen azken aldikoz, hautagaitzak 35. lekuan kokatuz.

COP27-AK KLIMA KUDEATZEKO EREDU FALTA ETA LEGEDIA EKONOMIKOEN INDARRA AGERIAN UTZI DITU

Aurten Egipton iragan den COP27 gailurrak emaitza gazi-gozo bat eman du: klima aldaketaren aurrean estatu zaugarrienen galerak eta kalteak konpentsatzeko funts baten sorrera. Garaipen historikoa izanik ere, funts hori oraindik mekanismo ahula da, eta zehaztu gabeko osagai asko ditu. Ahultasun horrek estatuetan oinarrituriko negoziatioetan du errua, eta gizateriaren ondasuna den klima gobernatzeko eredu falta agerian uzten digu.

 NICOLAS GOÑI

Azaroaren 20an bukatu da klima aldaketari buruzko NBE 27. konferentzia (COP27). Aurten lehen aldiz klima aldaketaren aurrean herri zaugarrienen galerak eta kalteak konpentsatzeko funts bat adostu dute, nahiz eta muga asko ukan. Alde batetik garaipen garrantzitsua da, COP horren hasierako gai zerrendan ez baitzen horrelakorik aipatzen, eta herrialde zaugarrienen eta klimaren aldeko aktibisten 30 urteko ahaleginen emaitza konkretua baita. Bertzaldetik, funts hori ez da oraindik ezer konpontzeko gai, eta erantzunik gabe uzten ditu galdera zehatz asko: zenbatekoak izanen dira finantzamenduak? Juridikoki zeintzuk izanen dira diru emaitzak? Zein izanen dira finantzamenduak lortzeko baldintzak eta arautegiak? Askiz gehazten ez den elementu bakoitzak dakar atzerapausoen arriskua. Hala ere, urrats bat baizik ez bada ere, urrats esanguratsua da lehen aldiz NBEko ofizialki aitortzea estatu zaugarrienen egoera eta berotegi efektuko gasen (BEG) isuri gehien duten estatuen ardura.

ESTATUAK, ARAZOARI AURRE EGITEKO ERAGILE EZEGOKIAK

Maxime Combes ekonomialariak oroitarazten duen bezala, beren egitura juridikoa dela eta, konferentzia horiek ez diete estatuei neurririk inposatzen ahal.

Erabaki guztiak borondatezkoak dira, eta emaitza konkreturik ez bada lortzen –edo emaitzak lortzeko plangintzarik aurkeztu ez bada ere– ez zaie orain arte inongo zigorrik aplikatzen. Gainera, Pariseko hitzarmenak (2015eko COP21ean izenpetu zena) estatuen arteko emulazioa sortzeko apustua egiten zuen, helburuak nork azkarrago lortzeko lehia bat, alegia. Baina ez zuen aurreikusten estatu multzo batengatik helburu orokorra lortuko ez litzatekeen egoera zuzentzeko mekanismorik. Gainera, gaur egun apustu haren kontrakoa ikusten ari gara, nor mantsoagoka ari baitira estatu gehiegi. Horrela galtzen ari gara beroketa bi gradutara mugatzeko aukera, ehunka milioi bizitza mehatxatuz. Era berean, konferentzia horiek ez dute trantsizio energetikoa bultzatzeko ahalmenik; horregatik erregai fosilak ez dira hitzarmenetan aipatzen, António Guterres NBEko idazkari nagusiak hainbatetan arazoaren larritasuna esplizituki adierazi badu ere.

CNRSeo ikerlari eta klima gobernantzan aditu Amy Dahanek azpimarratzen du Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) eta bertze hitzarmen bilateralek, aldiz, estatu izenpetzaileei arau hertsagarriak aplikarazten dizkietela, ekonomia globalizatua babesteko. Bertze hitzetan esanda, azken 30 urteetan merkataritzaren eta inbertsioen nazioarteko eskubi-

deak gailentzen zaizkio klima larrialdia. Dahanek “errealitate-zisma” izendatzen du egoera hori: alde batetik, NBEren gobernatze indargabea klimari dagokionez –kontrolatzeko, helburuak igotzeko edo egiaztatzeko mekanismo guztiak geldirik daude –, bertzaldetik, eta gobernatze horretatik kanpo, nazioarteko marko juridikoa moldatzeko gai den estatu eta enpresa handien lehia ekonomikoa. Arrakala horren ondorioak ditugu klimari buruzko negoziaketan mantsotzea eta klima aldaketaren larritzea.

EUROPAREN KONTRAESANAK

Europak atzerapen handia du energia trantsizioa martxan jartzeko neurrietan, eta horren ondorioz zaigu aurtengo otsailan gordinki agertu Errusiako erregai fosilen menpekotasuna. Europako estatuek presaka ibili dira ikatz zentralak berriz irekitzen edota gasa garraiatzeko portu azpiegiturak eta interkonezioak eraikitzen, bitartean bertze hornitzaileak (Aljeria, AEB, Azerbaijan...) kontratuak izenpetuz. Egoera honetan, Europak sinesgarritasun guti duela deitoratzen du Combesek, adibidez, Afrikako estatuei aholkatzen dienean gasa ustiatzeko azpiegituretan ez inbertitzea. European erregai fosilen menpekotasunaren ordean energia-neurritasuneko politika ausarta bultzatu nahiezek denbora asko galarazten du.



KLIMA JUSTIZIA

Galerak eta kalteak ordaintzeko finantzamendua eskatzen zuten herrialde zaurgarriek COP27aren kariatara. Lortu izana historikoa bada ere, hutsune asko ditu oraindik. (Argazkia: greenpeace)

razten digu klima aldaketaren aurkako borrokan. Dahanen iritziz, Europak nazioarteko klima-aitzindari izateko asmoa bateragarri egin behar du planetaren mugak kontuan hartuko dituen ekonomia berri baten ikusmoldearekin –ezin baitugu gehiago funtzionatu 1990eko hamarkadan ezarritako eredu ekonomikoarekin–. “Errealitate-zisma” gainditzeko, klimari buruzko arau hertsagarriak inposatu behar dira merkataritza hitzarmenetan.

ATERABIDEAK COP-ATIK KANPO

Globalizazioaren sehaska ideologikoa den AEBn, Joe Bidenek bultzaturiko *Inflation Reduction Act* legediak industria

sektore batzuk sustatuko ditu baldin eta ekoizpenak birtokiratzen badituzte. Hori esplizituki MMEren arauen aurkako da eta duela guti arte irudikaezina zitekeen. Bertze adibide esanguratsu bat dugu azken asteotan Herbehereak, Frantziak, Alemaniak, Espainiak, Esloveniak eta Poloniak Energia Kartaren Hitzarmenetik irtetzeko adierazitako asmoa. 1998tik atzerriko inbertsioak babesteko xedea du kartak, konkretuki klimaren aldeko politikak oztopatuz. Bi adibide esanguratsu: Herbehereak eta Italia auzipetuak izan ziren, bata ikatz zentralak itxi nahi zituelako eta bertzea ur sakoneko petrolio-prospekzioa debekatu nahi zuelako. Gaur egun, lehen

aldiz, Energia Kartaren Hitzarmenetik irtetze horiek aitortzen digute globalizazioaren alde sorturiko arautegi bat bateraezina dela klimaren babesarekin. Bi ondorio dakartzkien aurrekari garrantzitsua dugu: erregai fosiletatik irtetea ez da COPetan erabakiko; eta mundu mailako trantsizio energetikoa bultzatu nahi izanez gero, nazioarteko arautegi ekonomiko eta politikoa sakonki aldatu behar da. Horretarako, tokiko ekimenak funtsezkoak izanen dira Dahanen iritziz: estatu, eskualde eta udalerrri bakoitzak eraldaketa ekologikorako politikak martxan jarri behar ditu, indar harreman ekonomikoen oreka globalean eragin ahal izateko. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com





INKISIZIOAK SALBATU ZUEN JENDE PILA HEMEN EUSKAL HERRIAN, SORGINKERIA AFERETAN



Milaka agiri arakatu ditu Paul Arzakek azken 53 urteetan. Nafarroan izan diren ehunka sorginkeria prozesuetako datuak bildu ditu 443 orrialdetako *Sorginkeriarena gurean* liburu mardulean eta ateratzen duen ondorio nagusia da XV-XVI. mendeetako sorginkeria akusazio masiboek gehiago zutela muntaiatik egiatik baino. Arrazoiak: interes ekonomiko, politiko eta sozial handiak eta baita partikularren arteko liskarrak ere. Deus berririk ez laino guztien azpian.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Urte asko daramazu gaiaren inguruan ikertzen. Dokumentazio asko dago?

Nafarroan bai, zorionez. Nafarroako konkistaren denboran, eta ondoren ere, eskumenen eztabaida bat egon zen: zein botereri ote zegokion sorginkeria salaketak epaitzea. Hori dela eta, sorginkeria kasu asko hemen epaitu ziren eta prozesu zibil horiek aurki daitezke orain Nafarroako Artxibo Nagusian. Gehienetan, inkisitorialak baino interesgarriagoak dira eta, gainera, testuinguru soziala ulertzeko askoz aberatsagoak. Beste toki batzuetan, aldiz, Logroñon (Espainia) edo Simancasen (Valladolid, Espainia),

adibidez, dokumentazio asko galdu zen. Bibliografia ere ugari dugu. Azpimarratzekoa da, besteak beste, Gustav Henningsen daniarraren ikerlana. Sorginkeriaren fenomenoan munduko aditu handienetakoa da eta bere dokumentuak eta bibliografia fondoa NUPi pasatzeko joan den urtean.

Sorginkeria tradizionala eta talde sorginkeria ez direla gauza bera diozu. Zein da desberdintasuna?

Ez daiteke esan zehazki noiz hasi zen sorgintzaren inguruko sinesmena. Horren aztarnatzat har daitezke leize zuloetan ageri diren historiaurreko iru-

diak, edo horrela interpretatzen dira behintzat. Bukatu, aldiz, sinesmen horiek ez dira bukatu, baina eboluzionatuz joan dira.

Sorginkeria tradizionalaren arabera, ekaitzak edo uzta txarrak sorginek eragindakoak ziren. Oso desberdina da, aldiz, XVI. eta XVII. mendeetan Europa osoan hedatu zen sorgin-jazarpen erotua. Hugh Trevor-Roper eta Gustav Henningsen ikerlariak *witch-craze* eta *brujomanía* deitu zioten honi hurrenez hurren; parekotzat jo daiteke Julio Caro Barojaren *brujería colectiva*, eta nik euskaraz talde-sorginkeria erabiltzea proposatzen dut.



Juainas Paul Arzak

DONOSTIA, 1950



Historian lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. 1987an *Euskal Herriko Historia* argitaratu eman zuen. Bidasoa Ikerketa Zentroko bazkidea da. Irakasle aritu da urtetan, gehienbat Bigarren Hezkuntzan, duela 12 urte erretiroa hartu zuen arte. Artikulu eta ikerlan ugariren egilea da. Sorginkeriaren aferari dagokionez *Brujería, frontera y poder* (Bilduma, 13, 1999), 1610. urtea. *Nafarroako sorginkeriaren mitifikazio maltzurari buruz* (Uztaro, 43, 2002) eta *El aquelarre, una invención afortunada* (Gerónimo de Uztariz, 23-24, 2008) ditu lan ezagunenak.

Noiz izan zen sukar horren garai gorena?

XVI.-XVII. mendeetan. XVI. mendean Europan barna hedatzen doan talde-sorginkeria hori hona iritsiko da Nafarroa Beheretik sartuta. Urtetan judutarrei, herejeei, ijitoei edo kataroei leporatutako akusazio guztiekin eredu bat sortu zuten, gerora ustezko sorginei aplikatuko zieten. Haurrak akabatzea, lapurretak egitea, uztak hondatzea, hegaka ibiltzea... halako astakeriak leporatzen zizkieten eta horrela sortzen joan zen talde-sorginkeriaren irudia.

XV. mendean izurrite ikaragarri bat izan zen. Nafarroako populazioaren erdia hil zen, Peio Monteano historiariak frogatu zuen bezala. Honekin batera, hormate urte latz batzuk izan ziren eta jendeak jakin nahi zuen zergatik edo noren erruz gertatzen ziren gaitz horiek guztiak.

Nik hiru uholde edo bolada zehazten ditut sorginkeriaren zabalkundean, 130 urtean zehar. Lehen uholdea 1525etik 1540ra doa. 1525eko Nafarroa Garaian bi eremutan izan zen sorginen jazarpena: urtariletik abuztura ekialdean (Erroibar, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari), Errege Kontseiluko Pedro de Balantzen ardurapean hamahiru lagun eta 25 bat soldadu ibili ziren sorginen bila. Gero, abuztutik aurrera, mendebaldera joan eta Doneztebe inguruko kontzeju batzuk arakatu zituzten. Horren atzean daude konkista gauzatu berria eta barruko gatazkak, interes politiko, sozial eta ekonomikoak, jauntxoaren eta menpekoen arteko liskarrak, edo herritarren arteko haserreak. Horiek guztiek elikatzen zituzten salaketak, inguruko lurraldeetan gertatzen ari zen bezala (Jaka, Ribagorza, Tenako harana, Okzitania...)

Bigarren uholdea 1540tik 1575era arte luzatzen da eta hirugarrena 1575 eta 1620 bitartean. Azken horretan izen batzuen arteko lotura oso interesgarriak ikusten ditut nik. Agian gehiegi arriskatzen dut, baina elkartzen dut Araizko bailaran gertatutako akusazioen segida Lapurdikoarekin eta Baztan Bidasakoarekin, hau da, 1610eko Logroñoko prozesuarekin.

Frogatzerik ez dut, baina harremanak ikusten ditut pertsonaia garrantzitsu batzuen artean: Fray León de Aranibar, esate baterako, Urdazubiko abadea, diruduna eta boteretsua zen, eta aldi berean, Gaztelaren aldeko es-

pioiak ordaintzeko dirua eskuratzen zuen. Horrek bazuen harremana Nafarroako diruak kontrolatzen zituen Anduezarekin, Araizko alkate iraunkorarekin, eta berdin Urtubia-Altzateko jaunarekin eta beste agintari batzuekin. Horiek ere diru asko irabazi zuten Iruñeko Zitadelaren eraikuntzarekin. Gaur egungo abiadura handiko trenaren lanekin alderatu liteke, han ere interes ekonomiko eta politiko asko zeudelako jokoan. Gizon horiek guztiek sare handi eta eragin handikoa osatzen zuten. Pelikula bat egiteko moduko trama. Testuinguru horretan sorginkeria salaketak ugaltu egin ziren han eta hemen, kasu askotan interes horien arabera, Inkisizioak dena baretu zuen arte.

Inkisizioak baretu?

Inkisizioak salbatu zuen jende pila hemen Euskal Herrian, sorginkeria aferetan. Henningsenek aspaldidanik esaten du hori eta egia da: sorginkeriaren kasuetan inkisizioa arrazionalagoa izan zen bertako epaile zibilak baino. Haurren testigantzarik, adibidez, ez zuten onartzen. Logroñoko 1610eko auzi garrantzitsuan hiru inkisidore zeuden. Bik akusazioetan esaten zena sinesten zuten, baina hirugarrenak, Salazar y Fríasek, zalantzak zituen. Horri 'sorginen abokatua' deitzen zioten.

Salazar y Fríasek Iruñeko apezpikuaren sostengua izan zuen. Apezpiku hori Venegas y Figueroa zen eta Inkisizioaren ikuspuntutik ez zen edonor: 1606an hartu zuen Iruñeko gotzain postua, 1600az geroztik Madrilen Inkisizio Gorenaren mahaiko kidea izan ondoren. Venegasek postuan zera-man urte gutxi horietan, bertakoekin harremanean sartu zen eta bertako kulturari begirunea eta laguntzeko nahia erakutsi zuen. Horrela, 1609an eta 1610ean euskarazko poesia lehiaketak antolatu zituen. Henningsenek haren biografian azpimarratzen ditu apezpiku horrek sorginkeriari buruz egin zuen ikerketa pertsonala eta, batez ere, talde-sorginkeriarekiko erakutsitako eszeptizismoa.

Nolakoa izan zen Logroñoko auzia?

1610eko Logroñoko Fede Autoa ikaragarria izan zen. 30.000 pertsona inguru bildu ziren 10.000 bizilagun zituen hiri hartan. Fede autoaren muntaiaren helburua zen hots handiko antzezpenak egitea gaizkileen epaiketa eta zi-



gorra publikoki erakusteko. Iruñean ere festa moduan bizitzen ziren exekuzioak. San Frantzisko plazan zegoen presondegia, gaur egun liburutegia dagoen tokian, eta handik, tronpeta hotsen artean, Takonerara eramaten zituzten sorginak jendearen aurrean erretzera.

Logroñon Zugarramurdiko 53 pertsona epaitu eta horietatik hamaika sustan hiltzera kondenatu zituzten eta horren ostean eromen kolektiboa zabaldu zen modu ikaragarrian. Haurri bat altxatu eta hamalau sorgin agertzen ziren nonahi. Salazar y Fríasek dio une batean Baztan-Bidasoan bazirela 2.000 eta piko haur salatuta sorgin bezala. Zer gertatzen zen? Zugarramurdin populazioaren kasik %30 eta Donamaria kontzejuan %60 zeuden akusaziopean. Horrek esan nahi du hamar lagunetatik sei sorginak zirela? Rojas inkisidore nagusiak ezin zuen hori sinetsi.

Fede-autoaren ondorengo hila-beteetan sukar gisako bat sortu zen eskualde osoan eta hori dela eta, Inkisizioaren Kontseiluak Nafarroako mendiak bisitatzeko agindu zion Salazar y Fríasi, lehen eskuko informazioa eta testigantzak biltzeko. Agindu bat eman zion gainera: aitorpenik ez

behartzeko eta zalantzan jarri ziren kasuetan mehatxurik ez egiteko. 1611ko maiatzetik aurrera ia zortzi hilabetez ibili zen inguru hartan sorginkeria-sukar betean. Milaka lekukotasun funsgabe eta kontraesankor bildu zituen, akelarreak gertatu zirenen froga sendorik aurkitu ezinik.

Ikerketa hori eta urte batzuk lehenago Iruñean apezpiku egona zen Bernardo de Sandoval y Rojas inkisidore nagusiaren jarrera erabakigarriak izan ziren eromen kolektibo horri amaiera emateko unean.

Hori 1614ko Isiltasun ediktuarekin iritsi zen?

Inkisizioak ediktu hori argitaratu zuen sorginkeriaz hitz egitea debekatzeko. Horrela amaiera eman zitzaion prozesu eta akusazio uholde horri. Hortik aurrera injuriengatik epaitu ziren kasu batzuk, baina modu indibidualean.

Sorginen erreketari amaiera eman zitzaion Espainian 1614an. Hori egin zuen lehen herrialdeetako bat izan zen. Ondoren sorgin-ehizaren gainbehera etorri zen, goranzkoa etorri zen bezala. Ez zen bat-batekoa izan, eta ez zen toki guztietan batera gertatu. Kristauen arteko erlijio-gerra gogorren ondoren, no-

labaiteko bizikidetza-garaia etorri zen: estatuak indartu ziren, eta beren arteko mugak aldatuz eta gero sendotuz joan ziren; zientziek aitzina egin zuten, eta ilustrazioari atea zabaldu zitzaion. Oro har, Espainiako Estatuan 1614ko barealdian Eliza Katolikoak eta Inkisizioak sorginen jazarpena baretzeko ekimenetan garrantzi handia izan bazuten, Frantziako Estatuan erregeak eta gorteak izan zuten; Polonian, aldiz, sorgin-jazarpenak indartu egin ziren 1676tik 1725era eta Hungarian ikaragarria izan zen 1710 eta 1750 artean, adibidez.

Talde-sorginkeriarri buruzko ideiak isurtzen eta moldatzen joan ziren gizartearen goi-mailetatik behekoetara. XV. eta XVI. mendeetan bereziki auzi eta sermoinen bitartez irudikatu zena, XVII. eta XVIII. mendeetan, oro har, alderantzizkoa izan zen. Goi mailako gizartea filosofia mekanizista eta kartesiarra onartzen joan zen eta, aldi berean, gizarte mailen arteko hesiak handitu ziren. Herritar xumeak sorginkeria tradizionalen sinesmenara itzultzen hasi ziren eta sasi-jakintsuek, beren aldetik, sineskeria mespretxagarritzat hartu zuten.

Zergatik sorginkeria ez zen hemen bezainbeste zabaldu penintsulako beste toki batzuetan?

Beste 'etsai' batzuk zituztelako: juduak, moriskoak... Sorginkeria Galizian, hemen eta Pirinio aldean garatu zen gehienbat.

Euskaraz mintzo ziren akusatuak babesik gabe zeuden epaiketa saioetan?

Bai, hala da. Prozesu guztiak erdaraz egiten ziren. Itzultzaileak behar zituzten Nafarroako ia toki guztietan. Galdeketak eta dokumentazioa erdaraz zeuden eta testigantzetan tarteka agertzen ziren euskarazko erantzun bakan batzuk. Gainera, kontuan hartu behar dugu tortura bitartez lortzen zituztela bilatzen zituzten erantzunak. Tortura onartuta zegoen sistema bezala. Faltzesko Jaunak, adibidez, dokumentu batean esaten du Errege Kontseiluak bidalitako Balantza funtzionario gupidagabeari bost ordu emanez gero, sorginak atera ditzakeela nonahi. Sorginkeria kasuengatik edo berdin lapurretak edo beste delituengatik akusatutako euskaldunak beti babesik gabe gelditzen ziren.

Akelarre hitzaren inguruan zer ondoriotara iritsi zara?

Akelarre gurzur hutsa da. Aker larrea

erabiltzen zuten toki batzuetan mendiko magalak eta gune malkartsuetan ahuntzak besterik ibiltzen ez ziren tokiak deitzeko. Gaskonian *landubouc* edo Nafarroa Beherean askotan *boquelane* ere erabiltzen zen. Nire ustez, León de Aranibar Urdazubiko abadea eta Araitx aldeko beste agintari batzuk hasi ziren esaten bazegoela toki bat, akere larre bat, non sorginak biltzen ziren. Izen hori zabaltzen joan zen eta Logroño geroztik besterik ez da gehiago agertzen. Horrela Sabbath eta beste izen batzuk bazterrean gelditu ziren prozesuetan, nahiz eta jendeak halakorik ez erabili. 2000. urtearen inguruan Maite Lakar ikertzaileak Baztango, Malerrekako eta Bortzirietako ahozko tradizioa aztertu zuen sakonki eta lan horrek argi erakusten du akelarre hitza ez dela inoiz oso hedatua egon jendearen artean. Talde-sorginkeria muntaia horiek eraikitzeke beste elementu bat izan zen. Mespretxu edo bazterkeria kutsua eman zioten hitz horri, gaur egun 'zulo' hitzarekin gertatu den bezala. Gaztelaniaz 'agujero' eta 'escondrijo' hitzak badira, baina 'zulo' erabiltzen dutenean ez dute gauza bera adierazten. Nire irudiz, akelarre hitzarekin gauza bera gertatu zen.



Zer beste gezur gehiago dago sorginen inguruan?

Tximiniarena, adibidez. Esaten zuten sorginak erratzaren gainean ibiltzen zirela eta tximiniatik ateratzen zirela. Hego Euskal Herrian, ordea, etxe handiek baizik ez zuten tximinia. Bizi bordetik, baserriek eta herriko etxeek ez. Horrelako kutsatzeak gertatzen dira.

Apoaren ustezko boterearen ingurukoa ere muntaiaren barnean sartzen zen. Eta berdin emakumeen aurka esandakoak. Sorginkeriaaren arriskua

handitzeko, deabruaren boterearen gorakada sustatu zuten. Hasi ziren esaten deabrua ongi moldatzen dela emakumeekin eta horregatik jendea erotzeko, gaixotzeko edo hiltzeko ahalmena zutela begiradan. Eta esaten zuten emakumea zenbat eta zaharragoa, ordun eta makurragoa zela, hilekoa galduta, odol garbiketarik ez zutenez egiten, pozoiz guztia begietan biltzen zutelako.

Histeria kolektibo hori pulpitutik pulpitura zabaltzen zen. ●

Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda.
Herri bat BERRIaren kulturaren plazan.



Izan BERRIAlagun 6 hilabetez 50 euroan eta eraman BERRIaren agenda opari



Asteko
ikuspegia

Bietako bat
aukeran



Eguneko
ikuspegia

Berria.eus/berrialaguna

* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

berria zuk badakizulako



Iritziak

Elikagaien prezioak



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) elikagaien krisi berri baten aurrean gaudela ohartarazi du. Erakunde horren arabera krisi hau erritmo kezagarrian ari da zabaltzen horrelako egoerak sortarazteko ohikoak diren hiru arrazoi elkarrekin ematen ari baitira: Ukrainako inbasioa, ingurugiroaren hondamendia eta elikagaien prezioen gorakada.

Laboreen eta bestelako lehengaien behin behineko urritasuna ekarri duten arren, Errusiak Ukraina inbaditu izana ondasun horien prezioak igotzen jarraitzeko aitzakia aparta da elikagaien konpainia erraldoientzat. Baina FAO erakundearen datuei erreparatzen badiugu bistakoa da elikagaien prezioen igoera Ukrainaren inbasioaren aurretik ematen ari zela iada. Erakunde horren arabera mundu mailako elikagaien prezioen indizea 2011. urtean 131,9 izan zen, 2021ean 125,7; 2022ko otsailean (inbasioaren aurretik) 140,7 eta azken abuztuko 138ra jaitsi zen. Familiaren oinarritzko saskiaren prezio igoera %47,8koa izan zen 2020ko martxoaren eta 2022ko otsailaren artean. Gerra lehertu zenerako elikagaien prezioek goranzko joera nabarmena zuten.

FAOk egindako kalkuluen arabera urte honetan 2.774 miloi tona labore ekoiztuko dira, 2021. urtean baino 38,9 milioi gutxiago bakarrik. Hots, laboreen prezioek igotzen jarraitu dute 2022an

Gerra lehertu zenerako
elikagaien prezioek
goranzko joera
nabarmena zuten

hauen ekoizpena oso gutxi urritu den arren. Beraz, gerrak eta ekoizpen eskasiak elikagaien prezio igoeran eragin mugatua dute. Sakoneko arrazoia ulertzeko ondasun hauen merkatu egiturak aztertu behar dira.


Biztanleak gutxi asko elikagaiez hornitzeko gauza ziren herrialdeetako elikagai sistemak sare global bateko parte bihurtu dira globalizazioarekin. Eredu honetan eman den kapitalen kontzentrazioari esker, munduko biztanlegoaren gehiengo zabal baten elikaduraren oinarria osatzen duten elikagaien merkatuen kontrola eskuratu dute hamar konpainia erraldoiek. Oxfamen esanetan *big ten* hauek merkatu ia monopolistikoak lideratzen dituzte eta merkatu bosterea eskuratuta prezio igoerak bultzatu dituzte.

Baina bada besterik elikagaien prezio igoerak azaltzeko orduan. Lehenengaien eta elikagai gordinen munduko

merkatuetan ekoizpenaren ondoren sortzen dena, alegia, jorratzen den funtzionamendua, oso bitxia da. Merkatu hauetan egiten diren lehengai gordinen salerosketa kontratuetan epe jakin batean eskura emateko ondasun baten salerosketa sinatzen da, eta trukerako kantitatea eta prezioa ezartzen dira, gero merkatuak, alegia. Nolanahi ere, merkatu hauetan bankuek, inbertsio edo pentsio fondoei ere parte hartzen dute denbora tarte horretan suertatzen diren prezio aldatetekin espekulatzeko asmoz. Inbertsio fondo eta banku nagusiek merkatuaren gaineko kontrola duten heinean beren etekinak gizontzeko prezioak erabakitzeko ahalmena dute.

Mekanismo berezi hau erabilia azkenaldian elikagai gordinen prezioen igoera bultzatu dute finantza eragile hauek. 2008 urte ondoko krisialdian hasi ziren mekanismo hau erabiltzen elikagaien prezioak igoz eta desnutrizio zein gosetea zabalduz. Pandemiaren ondoren berrindartu egin dira ekimen hauek. Izan ere, Pariseko gari merkatuan adibidez espekulatzailerik hauen esku hartzea 2021eko %23tik 2022ko apirileko %72ra igo da IPES Food erakundearen arabera. Joan den hamarkadan Europar Batasunak neurriak hartuko zituela iragarri arren finantza erraldioen lobbyak asmo hori bertan behera uztea lortu zuen. Oraingoan neurriak efektiboak egin behar dira ezinbestean. ●

Claudius de Cap Blanc bulbagrafoa gogoan



ANTTON OLARIAGA



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Joan den azaroaren 11n hil da Claudius de Cap Blanc. Bere buruaz beste egin du, tiroz, 69 urtetan. Gizon hori eroa zen, zioen administrazioak, ontasun naturala andeatzen zuelako, eta diru publikoz sustengatu arte garaikide ofiziala gaitzesten zuelako. Zizelkari hori zinezko artista zen, diote bere hurbilekoek: berezko ikuspegi etiko eta estetikoak zeukan gizakiaren historiaz, gizakia eta izadiaren arteko harremanez, emetasunaz. Presuna bera ezezaguna dut, baina haren obra ikusteko parada izan dut. Haren heriotzak hunkitu nau, artista gisa gutxietsia eta zigortua izan delako, eta horrengatik fin gaizto egin duelako.

Egiazko izena Jean-Claude Lagarde zuen, eta 1953an sortu zen, Okzitania Pirinioetako Ariège eskualdean, laborari etxe batean, bederatzi haurrideko familian. Eskola gazterik utziz eta anitz bidaiatu ondoan, berrogei bat urtetan hasi zen zizelkadura bitxiak egiten. Garai hartan, bere ideia zen ohartaraztea Historiaz dugun ezagutza partziala dela, Historiak “ziloak” dauzkala, eta frogatzea asmakizunez bete daitezkeela zilo horiek. Irudikatu zituen makinak edo pertsonaiak, izan ez direnak, baina izan

zitezkeenak, eta menturaz gure giza kezak konpontzen jakinen zuketenak, adibidez, *Kalte zuzentzailea*, *Isuri alde-rantzikatzailea*, *Baketzailea*, *Hitz pisa-gailua*, *Iragana ezabagailua*. Obra bakoitzarendako, Claudius de Cap Blanc-ek azalpenak eman zituen, makina egile eta pertsonaia fiktiboen biografiak garatuz, alegiazko testuinguru historikoak zehaztuz, beti umorea edo ironiarekin. Affabuloscope (“Alegiaskopoa”) deitu museoa ere apailatu zuen Mas d’Azilen, berak, zizelkadura horiek erakusteko.

Azken hamabost urteetan, berriz, “bulbagrafo” bihurtu zen, berak zioen bezala. Hain zuzen ere, Jean Clottes-en hitzaldi bat entzun zuen 2007an, bulbaren zeinuaz historiaurreko artean, eta geroztik argi izan zen harentzat *homo sapiens*aren bilakaeran, aluaren zeinua izan dela, duela 38.000 urte, lehen sinboloetarik. Claudius de Cap Blanc-en ustez, emetasunari gorazarre egiten dion marrazki hori izan da gizaki alfabetoetan lehen letra. Jakina da gainera, harpeetan marraztu zuten giza prehistorikoetan emazte asko izan dela. Bazen beraz garaia, Claudius de Cap Blanc-en ustez, milaka urtez nagusitu den pa-

triarkaltasunaren aurka altxatzeko eta gure arbasoen obra segitzeko. Ondorioz, Ariège departamenduko oihan eta mendi kasik guzietan ibili da, bulbak zizelkatuz zuhaitzetan edo harkaitzetan. Mas d’Azilko harpean ere aritu zen, historiaurrekoen lanari jarraikiz, baina ondare babestu andeatzaile zelakoan, eta proiektu artistiko ofizial bat tratatzen zuelakoan, presondegia zigorra eman zion administrazioak, eta isun potoloa. Halere, temati segitu zuen, baina oztopo gero eta gehiago ezarri zioten. Joan den hilabetean, eraiki zuen “bulba baratzea” osoki suntsitua aurkitu zuen, eta etsiturik, hiltzea nahiago izan du.

Tokiko prentsak “tragedia” hitza erabili du Claudius de Cap Blanc-en heriotza izendatzeko. Tragedien ezaugarria da, Aristotelesen arabera, halabeharrak kondenaturik daukala protagonista: zazpi ahalak egin ditzake bizirauteko, zortea saihesteko: alferrik. Antzerkiaren historian, destino gaitz horren irudia izan da lehenik dibinitatea, ondotik giza kondizioa bera. Bizitza errealean, haatik, arruntagoa eta negargarriagoa izan daiteke artisten fortuna manatzailea: administrazioa. ●

Instituzioak, autogestioa(k) eta zioak



**ITZIAR MORENO
MARTINEZ**
EUSKAL PRESO
POLITIKOA

*“Utzi aizkora
Sustraiak kolpatu
Eroriko da pozoiazen zuhaitza”
XIX. mendeko ludditen esaldia*

Aizkorarik gabe ez badago zuhaitza botatzerik, zuhaitza erabilita kapitalismoaren, patriarkatuaren eta zanpatzen gaituzten estatu errepresiboen ikur gisa; jakina, dirautela harro eta luzaz gure basoetako arbola ederrek! Bada, aizkorarekin hainbat zuhaitz ustel kolpatu genituen, baina koskor batzuk bota ere.

Aizkora utzi beharra eta, noraeza, dudak eta mudak. Nola erauzi baso kirastua, haritza zahar sendo zein kimu aske berriei bide emateko? Instituzioei lehentasuna emanek? Kalea betez eta astinduz? Herri mugimendua berrindartuz? Tresna berriak sortuz? Esku bereko hatzamarren gisan ulertu ditut nik beti horiek guztiak, atzokoak eta gaurkoak.

Instituzioengan sinesten ez badugu ere, izan daitezkeelako zuhaitza zauritze-ko arma eraginkorra; baina ez eurak bakarrik, ez eta egungo ordezkatzeko sistema sasi-demokratikoan sinesten dugulako ere. Gaurko erakundeak diren bitartean gutxi batzuen esku dagoen boterea, ez delako sekula egiazko askatasuna izango, botere delegazio horrek ukatzen duelako herritarren zuzeneko parte hartzea, erabakitzea, eta ekite bera.

Gutxi batzuen boterea vs Herri Boterea. Instituzioak vs Autogestioa –Buru-

jabetasuna-. Kropotkinnek esaten zuen moduan, iraultza ez delako agintarien aldaketa soil bat, baizik eta garapen soziala oztopatu duten botere horien guztien deuseztatzea, herriaren botere-tzearen eskutik. Burgesiak, kapitalaren jabe den bitartean, ez duelako sekula inolako “esperimentu sozialistarik” garatzen utziko, instituzioen boterea bereganatzen badugu ere. XIX. mendean idatzi zituen hitzok badute, ene aburuz, gaurkotasun eskerga.

Ludditek, Ingalaterran zein munduko beste txoko batzuetan, mitologia eta irudimena lagun, euren lana lapurtzera etorri ziren makinak suntsitzen zituzten. Guk ere, Kantauriko begiko herri zahar honetan, badugu asmatzeko gaitasun handia gure borroka berregokitze-ko, aizkorarik gabe ere zuhaitz ustelak botatzen jarraitzeko. Gakoetako bat izan daiteke herri mugimendua indartzea eta horretarako tresna berriak sortzea; burujabetzaren aldeko herri mugimendu horretan aske ekinez, eraginkortasunez saretzea; instituzioak, helburu baino, beste tresna bat direla ulertzea; baita ekonomia sozial eraldatzailea gauzatzeko, herri eta hiri proiektu txiki horien guztien sendotze eta biderketaz... Eta noski, kaleak astintzen jarraitzea, beti bezain gureak direlako. Oro ere ilusioz, Mab erreginak guri ere eman diezagukeen naturaren indarrarekin, eta arrazoiarekin. “Sorionekuak” gu!. ●

Gauzez



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Azken asteotan, ordua aldatuz gerroztik bereziki, gau sakon, luze eta etengabe batean bizi naizela dirudit. Ene egiteko gehienak eguzkia sartu ondorengo uneetan gertatzen dira. Gustatzen zait alabaina, betidanik lo nekeze-ko gau-txoria izan naizela uste dudalako. Beltzaren oihalak troxatzen nauenean, gainera, dena hobekiago ikusten dut, kanpoa bai eta ezinegonak inarosten duen barnea ere. Argirik ez dagoenean, funtsean, bataren eta bestearen arteko ezberdintasunik ez dago.

Autoan, Nirvana *unplugged* dantzut, *Fantasia* eta *Zintzilik* diskoekin aldiz-

ka, euri zeharkariak autobusen leihoak jotzen dituenean aldiz ene gogoeten *Belharrari* jarraitzen diot, gizaki fantomatikoekin batera muga pasatzen dut topotik jaistean eta *Crimson* podcasta jartzen dudanean jadanik Highway 63 ezagunetik banoa, ihesean bezala. Bizitzaren paradoxa: gauean guztia argiagoa dela sinesten dut.

Aurpegiak hor dauzkate, memoriaren argi-ilunean gaitibatuak, ardurenean ez dakidan arren nor non gurutzatu dudanean, baina buru zokoan datxikat egundaino-koan, aipatu, eztabaidatu eta trenkatu dugunaren mamia. ●

Zelai alboko ogroa



AINHOA AZURMENDI ECHEGARAY
KIROL AHOLKULARIA ETA EHU-KO
IRAKASLEA

Zelai alboko alde batetik bestera aginduak ematen ari zen entrenatzailea. Zelaiko jokalaria bat barrura deitu zuen eta beste batengatik aldatu zuen. Mutikoa aulkian eseri orduko, gizonak buelta eman zuen, eta rolak, adinak, esperientziak, eta generoak berak ematen dion botere posiziotik, burua makurtu zuen jokalaria errieta egiten hasi zitzaion. Harmailetatik ogro beldurgarri haren oihuak entzun eta gorputz keinu oldarkor haiek ikusiz, mutikoa besarkatu eta tartetxo batez harekin oskolean izkutatzeko gogoa eman zidan, nolabait, jasanezina egiten zitzaidan indarkeria egoera hartatik babesteko. Bitartean, partidako erritmoak bere horretan jarraitzen zuen, zelaiko protagonistak bakoitza berean, eta harmailtan ohiko diren oihu, txalo eta iruzkinak. Alegia, han zeuden pertsonentzat egoera normala zen. Ziur asko, baita mutiko harrentzat ere.

Izugarría da zein neurritan normalizatu den indarkeria kirol arloan, eta nola behin eta berriz justifikatzen den entrenatzeko estilo autoritario eta agre-

Izugarría da zein neurritan normalizatu den indarkeria kirol arloan, eta nola behin eta berriz justifikatzen den entrenatzeko estilo autoritario eta agresiboa

siboa, maskulinitasun hegemonikoa go-raipatzen duena, homofobia, zakarkeria eta umiliazioa onartzen duena, eta izua eragiten duena. Eta hain dago zabalduta entrenatzeko estilo hau ezen formakuntza adineko kirolean parte hartzen duten agente ia guztiek onesten duten, jokalariek barne, motibatze beharrezko izango bailuketeen. Pedagogiaz zertxobait ikasi duenak badaki beldurra ikaskuntza prozesuaren arerio handia

dela, eta nahikoa izan daitekeela entrenatzaile batek sortzen duen indarkeria egoera bakar bat bizitza guztirako oina-zea eragiteko, kirol bat ikasteko eta lagunak egiteko klubera pozik etorri ziren neska-mutilei.

Ulergaitza egiten zait oraindik ere egoera hauek ikustea, eta inguruak normalizat hartzea; ulergaitza haurren heziketan murgilduta dauden pertsonen umeak horrela tratatzea; ulergaitza entrenatzaileen formakuntzetan tratatu onak sustatzeko edukiak barneraturik ez egotea; eta ulergaitza klub edo federazio batek haurrak ondo tratatzen ez dituen pertsona bat hezitzaile onartzea.

Haur eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko lege berriak auzi honetan azpimarra jartzen duen arren, eta tratatu onen inguruan kirol arloan hainbat bete-behar ezartzen dituen arren, bada garaia kirol arloko agenteek kontzientziatzeko kiroleko bihotz gazteak zaindu eta babesteko. Kirol emaitzak baino, horretxek ekarriko baitu haien ongizatea eta zoriontasuna. ●

ZUZENKETA: Joan de asteko Iritzi sailean *O, DIY!* artikulua plazaratu genuen. Testua Beñat Muguruza irakasle eta ikertzaileak idatzi zuen, eta ez Beñat Irasuegik, guk jarri genuen moduan. Barkamenak irakurle eta egileei.

EuskarAbentura

expedizioa

2023

IZEN EMATE EPEA IREKITA!

www.euskarabentura.eus

Babesleak

bbkE

EUROREGION EUROESKUALDER EUROREGION

GOBIERNO de Navarra

Nafarroako Gobernua

araba álava

Fora alandak diputazioa foral

Bizkaia

Donostia SAN SEBASTIAN

Bilbao

Getxo

Kaiku

Laguntzaileak

EUROPEAN COUNCIL

PUNTO EUS

euskotzen

EU

UN

EUDEL

8P

"K"

ALC

UIMA

Hedabide laguntzaileak

berria

elait

ARGIA

TOKIKOM

naiz

SUR

K

mediaset



Hemengoa
izatea ona da

EROSKIk Euskal Autonomia Erkidegoko
1.700 hornitzaileekin
lan egiten du, **770 milioi eurotik**
gorako erosketa-bolumenarekin



EROSKI

zurekin

GAZTEAK ETA SARE SOZIALAK

Erakusleiho digitalean eta hari begira haztearen berezitasunak

Teknologia digitalaren garapenak aldaketa handiak eragin ditu harremanetarako moduetan eta gure nortasuna osatzeko prozesuan. Interneten zer kontsumitu eta sare sozialetan zein rol jokatzeko dugun, horiek ere definitzen dute nor garen. Areago ingurune digital batean jaio diren gazteen kasuan. Identitatea eraikitze prozesuan aldaketa handiko garaia da nerabezaroa, eta bidearen erdian gainera lehen mugikorra eskuratzen du askok. WhatsApp, Instagram, Tik Tok, BeReal, bideo-jokoak, pornografia... Leiho erraldoia irekitzen zaie parez pare, iparra topatzeko ahalegin betean.

 JON TORNER ZABALA

Arratsaldeko seiak dira. Abisuak jo du zure mugikorrean. Bi minutu dituzu argazkia atera eta lagunekin partekatzeko. Atzo, eguerdiko hamabietan jaso zenuen mezu bera, eta bihar ere helduko zaizu, auskalo zein ordutan. Bi minutu. Ez du axola non eta zertan ari zaren, kalean oinez, tabernan, eskolan, ohean erdi-etzanda edo komuntzian eserita... Zeure buruari argazki bat atera behar diozu, eta bigarren bat parean ikusten duzun paisaia, pertsona edo dena delakoari. Ezin duzu filtrorik erabili, ezta irudiak editatzeko bestelako tresnarik ere. Helburua da unean bertan zertan ari zaren erakustea, argazkirako “prestatzeko” aukerarik eman ez eta “autentikoago” agertzea. Bai baitakigu apur bat aspertzen zaituztela unibertso osoa ortzadar kolorekoa bailitzan erakusten duten sare sozialek.

2022an gazteek gehien deskargatu duten aplikazioa da BeReal. Adituek diote Instagram-ekin lehiatzeko sortua dela, “postureoa” gainditu eta errealtateari fidelagoa zaion irudia erakutsi nahi duen neurrian. Izan ere, zenbait aplikazioen bidez zabaltzen diren “irudi idilikoez” kokoteraino dago hainbat jende, Ane Ortiz Ballesteros sexologo eta psikologoak azaldu digunez. Gasteizko Emaize zentroan egiten du lan, nerabeekin sarri, harreman-sareak osatu eta identitatea eraikitze prozesuan teknologiak jokatzeko duen paperaren bueltan. “Gazteak nekaturik daude etengabe ikusteaz haien zat eskuragarriak ez diren gauzak”, dio. Ikusteke dago xede “errealista” horrek BeReal-en aurka egingo duen ala, aitzitik, arrakastari eutsiko dion. Bien bitartean, *postureo*aren kultura agortzen ari ote den, Ortizek zalantza egiten du, nahiz eta aldaketarik sumatzen duen.

Ezkutuan geratzen ziren gai batzuk azaleratzen ari dira, eta horren erakusgarri da geroz eta *influencer* gehiagok hitz egitea euren arazo eta gaixotasunez. “Lehen guztia zen hain zoragarria, hain perfektua...”, esan digu. “Orain gazteek aukera handiagoa dute gertatzen zaiena identifikatzeko; batzuetan gaizki sentitzen gara eta ez dakigu oso ongi zergatik, non begiratu ez daukagulako. Gainera, nahiz eta oraindik ere profil hegemoniko bat nagusi den, sare sozialak aniztasun espazioak dira, non biltzen diren errealtate desberdinak, orotariko bizipenak, gorputz mota asko... Eta, nerabezaroan, geure identitatea eraikitze prozesuan erreferenteak izatea inportantea da”. Horrek ez du esan nahi norberaren arazoak automatikoki desagertuko direnik, baina lagungarri da ulertuko gaituen jendearekin bizipenak partekatzea, arazo edo sentimenduez

bezala zaletasunez mintzatzea, munduko arraroenak izanagatik.

Intimitatea kanporatzeko nahia “exhibizionismo-ariketa izan litekeenaz harago” doala uste du, “kaltetutako autoestimua konpondu” nahi dituela. “Pertsonak beren bizitzako alderdi intimoak azaltzen dituzte gainerakoen onespena edo enpatia bilatzeko eta, batez ere, gizarte-loturak ezartzeko aha-ginean”.

ERAKUSLEIHOA ETA DENDAOSTEA

Geure identitatearen garapenean faktore mordoak esku hartzen du. Plano analogikoa dago batetik, Internetetik kanpoko, familia, lagunak... Eta digitala bestetik, sare sozialetan bizi, ikusi edota erakusten ditugunak. “Plano bietan dugu geure erakusleia”, azaldu digu Ortizek. Etengabe ari gara zernahi erakusten eta guri buruz informazioa ematen. Esaterako, gaur bertan zer eta norekin egingo dudan, diferente jantziko naiz, diferente jokatu dut. Eta, aldi beran, denok dugu dendaostea, non gordetzen ditugun guretzat inportanteak diren gauzak, baina besteek ikusterik nahi ez ditugunak, intimitateari lotuak daudenak. Sare sozialetan, oro har,

*“Dena lortu nahi
dugu instant batean
eta esfortzu handirik
egin gabe,
eta horrek gure
bizitzako esparru
guztietan du eragina,
bikote-harremanetan
adibidez”*

ANE ORTIZ, SEXOLOGOA

gainerakoen erakusleioak ageri zaizkigu, baina atzealdea ez hainbeste. Eta erakusten digutena alderatzen badugu dendaostean gordeta daukagunarekin, etsigarria gerta daiteke.

Sexologoaren hitzetan, “geure identitatea joaten gara eraikitzen auto-behaketeta eta konparazioaren bidez eta, gaur egun, barrurantz baino, kanporantz begiratzen dugu geroz eta gehiago. ‘Nor naiz ni?’ galdetu ordez, ‘hori bezalakoa izan nahi dut’ esaten diogu geure buruari, gure identitate propioaren eraikuntza galduz. Uneoro baitauekagu norekin alderatu, bai plano analogikoan, baita digitalan ere, milaka pertsonarekin”.

Hari horri tiraka guztiok harrapatu gaituen sistema kapitalistaren ajeez mintzatu zaigu: “Dena lortu nahi dugu instant batean eta esfortzu handirik egin gabe –gaur bi produktu erosi ditut Amazonen eta bihar bertan ekarriko dizkidate etxera–, eta horrek gure bizitzako esparru guztietan du eragina, bikote-harremanetan besteak beste. Espazio analogikoe-tako sedukzio- eta gorteatze-prozesuak bigarren maila batera igaro dira, eta gailu elektronikoak funtsezko tresna bihurtu dira bikote berriak lotzeko edo sortzeko”.



KAPITALISMOA EZ DUTE SARE SOZIALEK ASMATU

Iker Madrid politologoak idatzi duen moduan Contracultura webgunean publikatutako *El papel de Instagram en la configuración de nuestra identidad* (Instagramen papera gure identitatearen konfigurazioan) artikuluan, “Instagramek edo beste edozein sare sozialek sortutakoa, izaera positiboa izan zein eragin negatiboa, lehenagotik ere gizartean zegoen, ez da hutsetik azaleratu. (...) Instagram, Twitter edo Facebook diren bezalakoak dira egitura konkretu batean integratuta daudelako, kapitalismoan alegia, negozio-eredu zehatz baten menpe. Instagramek ez ditu ezerezetik sortzen jokaera, jarraibide existentzial edo prozedura sozial berriak, baizik eta areagotu egiten ditu, ezeztatu, sustatu, leundu edo birformulatu”.

Autoreak eztabaida interresgarria planteatzen du gizarte neoliberalak dauzkan ezaugarri nagusien –lehiakortasuna, esaterako– eta sare sozialek hauspotzen dituzten jokabideen arteko erlazioaz: “Espazio horietan urradurarik gabeko erabateko zorientasun irudia eman nahi dugu, eta ondorioz emozio batzuk (tristura, amorruea, etsipena, sufrimendua, antsietatea...) sakrifikatu edo ezkutatu egiten dira, geure barruan urradurak sortzeraino. Horrek ez du esan nahi sare sozialak direnik buru-osasunean pitzadurak eragiten dituzten faktore bakarrak; handiagotu egin ditzakete, ordea”.

“SINPLIFIKATU” ETA “ERRAZTU” EZ DIRA GAUZA BERA

Tinder, Meetic, eDarling... bikotekidea topatzeko aplikazio ugari dago eta, gainera, propio horretarako sortu ez ziren beste batzuen bidez –Instagram eta Tik Tok adibidez– ere *ligatu* daiteke, kode edo estrategia bereziak erabilita: pertsona batek igotako argazki, bideo edota eta profilari “atsegin dut” eman eta hortik abiatuta, agian, bide luzeagoa hastea; ohiko erabiltzaileak ez direnek nekez



ANE ORTIZ BALLESTEROS sexologo eta psikologoaren hitzetan sare sozialak aniztasun espazioak dira, non biltzen diren errealtate desberdinak, orotariko bizipenak, gorputz mota asko... “Geure identitatea eraikitzeko prozesuan erreferenteak izatea inportantea da”, dio.

*Neurri batean,
gazteek lotzen
dute mugikorraren
erabilera bestelako
estimulu faltarekin.
“Entretenitzeko beste
zerbait baldin baduzu
ez duzu behar, baina
asperturik baldin
bazaude...”*

harrapatuko dituzten klabeetan egin eta jasotako iruzkinak... Ane Ortizen hitzetan, sedukzio eta gorteatze prozesuetan kodeak erabat aldatu dira, ez soilik digitalizazioak bultzatuta, baita orain arte erabili diren estrategiak geroz eta gehiago kuestionatzen direlako ere. “Feminismoak gauza ugari jarri du zalantzan, lanketa handia egin da bikote harremanen inguruan”, azaldu digu. Hala ere, nahiz eta gazteek barneraturik duten indarkeria egoera edota kontrol mekanismoen gaineko diskurtsoa, zailtasunak dituzte plano digitalean jarrera desegokiak identifikatzeko. “Esaterako, ikasleei galdetzen diegunean zer iruditzen zaien bikotekideari esatea nola jantzi behar duen, badakite txarto dagoe-la; baina duda egiten dute, demagun, bikotekideak eskatzen dizunean Instagrameko pasahitza emateko, edo lokalizazioa uneoro aktibatuta izan eta norekin zauden esateko, “atsegin dut” nori eman diozun begiratzen uzteko... Maitasun froga bezala ikusten dute sarri. Ulertu behar dugu sare sozialak ez direla soilik norberaren espazio intimokoak, baizik eta gure edu-

ki pribatueta sarbidea duenak gure lagunek plazaratutakoak ere ikusi ahal izango dituela”.

Hein batean, bat-batekotasun horren eraginez besteak beste, gorteatze prozesuak “sinplifikatu” eta batez ere “bizkortu” egin direla uste du Emaizeko sexologoak, baina horrek ez du esan nahi bikotekidea topatzea samurra denik: “Gazteek askotan esaten dute plano digitalean erraza dela flirtean aritzea edo elkar gustuko dutela adieraztea, zailagoa aldez harremanari estuago heltzea, birtualki emandako lehen urrats horietan osagai asko falta dira-eta”. Gauza bera kontatu digute Urretxu-Zumarraga ikastolako hamabost urteko ikasle batzuek (ikusitako koadroa). “Sare sozialek agian erraztuko zuten bikotekidea aurkitzea, elkar ezagutzea, baina aurrez aurre bestelakoak dira kontuak. Aurpegira esatera ausartzen ez zarena mugikortetik esaten diozu, eta gero...”.

Instagram, Tik Tok... eta deirik apenas

Lagun batek, 12 eta 15 urte arteko hiru neska-mutikoren aitak, mugikorrean instalatu dituen bi aplikazio erakutsi dizkigu, Family Link eta Qustodio. Seme-alabek mugikorrarekin zenbat denbora eta zertan igarotzen duten kontrolatzeko jarri ditu. “Seme zaharrenak Family Link hackeatzen ikasi zuen, konturatu ginen eta sesioa izan genuen... Horregatik instalatu nuen Qustodio ere bai, Gmail kontu bati ez baizik eta nire zenbakiari lotuta dagoelako”. Instagramen ere egin du azpikeriarik semeak, ezkutuko profil bat sortuta. Ez da bakarra, aitari kontsolagarri bazaio... Gazteak urrats bat edo bi aurrerago doaz (ia) beti. Semeak Instagramen pasatzen du denbora gehien, jokoan, Tik Tok, Whatsapp, Snapchat eta azkenaldian BeReal-en ere bai. Mugikorra apenas erabiltzen du deiak egiteko.

Instagram, Tik Tok... horietan dabil-tza jo eta su gure lankide baten seme-alabak ere bai. “12-13 urte zituztenean kontrolatzen genituen apur bat, baina 14-15 urterekin ihes egiten dizute, konturatzen zara zuk ezagutzen duzun kontuan geroz eta mugimendu gutxiago dagoela... Etsi genuen, orain mugatzen gara errezatzeraz ez dadila saltsatan sartu. Lehen, tarteka begiratzen genituen haien kontuak, eta ikusten genituenak... Euren intimitatean kuxkuean ari gine-la-eta haserretu egiten ziren, ordea, eta atzera egin genuen”. Gazteok ere oso dei gutxi egiten dute mugikorrean.

Uste genuena baino zabalduago dagoen fenomeno da, eta bada ingurune digitalean jaio diren nerabeak definitzeko “Mute belaunaldia” terminoa baliatzen duenik ere. Geroz eta gazte gehiagok uzten du mugikorra isilean, eta normaltzat dute deiak ez erantzutea. Urduri ere jartzen dira, beharturik izanez gero telefonoz hitz egitera. Pizza bat eskatzeko, adibidez, aplikazioaren bidez egin badaiteke, askoz ere hobeto. Ez gara eztabaidan hasiko, zein den kausa eta zein efektua, baina inguruan dauzkagun McDonald’s batzuetan pantailak jarri dituzte, bezeroak eskaera bertatik egin dezan, inorekin hitz erdirik trukatu gabe. Makinak pertsonen lekuan. Luze joko luke sistema kapitalistaren tentakuluez idazteak.

ASPERDURAREN KONTRAKO ANTIDOTOA

“Geuk ere oso gutxitan deitzen dugu”, kontatu digute 12-15 urte arteko zortzi gaztek. Urretxu-Zumarraga ikastolako ikasleak dira; bi taldeetan banatuta elkarriketatutako ditugu, gehien erabiltzen dituzten aplikazioen inguruan. 12-13 urteko neska mutikoek, oro har, gurasoei baino ez dute telefonoz hitz egiten, prezazko zerbait denean, “WhatsApp mezua bidalita auskalo noiz erantzuko dute-eta”. Hamabost urtekoek geroz eta gutxiago erabiltzen dute WhatsApp; funtsean, lagunarekin geratu eta gurasoei komunikatzeko. Eta audio-grabazioak, soilik konfiantzazko jendearekin. Noiz edo noiz pasa izan da norbait WhatsApp taldeetik botatzea, baina “ikastola garaian” –orain lizeoan daude–. “Kaos handiagoa zegoen orduan; egun kontzienteago gara”, diote.

Askoz ere sarriago erabiltzen dituzte Instagram eta Tik Tok, lehena besteak beste argazkiak ikusi edota mezuak trukatzeko, eta bigarrena batez ere kuxkuean ibiltzeko. Erabiltzailea engantzatxeko ahalmen izugarria omen du Tik Tok-ek, norberaren gustuetara egokitzen den bideo-eskaintza medio. Snaptchat, BeReal, Netflix, Spotify... bakoitza helburu desberdinarekin erabiltzen dute. Kontziente dira, heldue-

nak bereziki, euren buruzko informazio ugari ematen ari direla aplikazioen bidez, eta saiatzen dira argitalpenak ahalik eta pribatuak izaten, edota lokalizazioaren berri uneoro ez ematen.

Hein batean deigarria egin zaigu hamahiru urteko neska esandakoa: “Mutirik gehiago entretenitzen dira mugikorrekin gabe, kirola egiten-edo”. Urtebete gazteagoa den mutikoak hartu du hitza: “Tira, batzuk asteburuetan ere etxean geratzen dira. Galdetzen diozu ea zergatik ez den aterako eta etxeko-lanak egin behar dituela erantzuten dizu. ‘Zer esaten ari zara, etxeko-lanik ez daukagu-eta!’”. Mugikorrarekin pasa nahi ditu zortzi ordu.

Gazteok, neurri batean, lotzen dute mugikorraren erabilera bestelako estimulu ezarekin. “Udalekuetan hamabost egun eman genituen mugikorrekin gabe, eta ez genuen haren falta sumatu”, kontatu digute hamabost urteko neskek. “Noski, gutako inork ere ez zeukan, eta gainera egun denak desberdinak ziren. Hemen guztiak igualak dira, aspertu egiten gara, eta ongi dator deskonektatzea. Parrandan ateratzen garenean, adibidez, ia kasurik ez diogu egiten mugikorrari; entretenitzeko beste zerbait baldin baduzu ez duzu behar, baina asperturik baldin bazaude...”.



SURPRISING SHOTS / PIXABAY

Pantailaren gibeletik aritzeak ematen duen ausardiaz jarraitu dugu gazteokin hizketan: “Lagun batekin haserretu, eta aurpegira hitz egin ordez, mugikorre-*tiak mierda* piloa botatzen duzu haren gainean. Jendea puztu egiten da mugikorraren atzean. Pertsona batzuk profil faltsuen atzean ezkututzen dira, edo ezagun zein lagun baten izenean sortzen dituzte –gutxiagotan gertatzen da– eta handik bazterrak kakaztu. Babestuago sentitzen dira, edozer esateko boterea-*rekin*”. “Bai, jendea Whatsapetik ausartagoa da”, esan digu 12-13 urteko beste ikasle talde batek.

Ortizzen ustez positiboa da sareak izatea espazio bat non jendea seguru sentitzen den, aske, plano analogikoan egingo ez lituzketenak egiteko. “Lotsatiak direnentzat, lagun berriak egiteko zailtasunak dituztenentzat, plano digitala ihesbidea da. Noski, horrek arriskua ere badu, plano analogikoan egingo ez lituzketen gauzak zeintzuk diren...”.

INTIMITATERAKO ESPAZIORIK EZ

“Maitemintzen garenean behar handia sentitzen dugu pertsona horrekin gure intimitatea eta gorputza partekatze-*ko*”, azaldu digu Emaize zentroko sexologoak. “Gazteek, ordea, ez dute kalitatezko espaziorik euren intimitaterako. Elkarrekin lasai egon nahi dute, baina demagun euria ari duela eta gurasoak etxean daudela; ez dute garaje edo atari batean egotea besterik”. Lehen ere horrela ez ote zen galdetu diogu. “Baita ere, baina orain osagai berriak daude”, erantzun digu. “Espazio horien faltan gora egiten ari dira sexting eta zibersexu praktikak; logikoa den moduan, plano digitalak bete du hutsune hori”. Gauza orok bezala, alde on eta txarrak ditu honek guztiak. Plano analogikoan dauden arrisku batzuk desagertzen dira (plani-



NATUREADICT / PIXARAY

MUTU. Telefono deirik ia egiten ez duen gazteria definitzeko “Mute belaunaldia” terminoa erabiltzen da. Geroz eta gehiagok uzten du mugikorra isilean, eta normalizat dute deiak ez erantzutea. Urduri ere jartzen dira, beharturik izanez gero telefonoz hitz egitera.

fikatu gabeko haurdunaldia, gaixotasunen bat kutsatzea...), ‘panikoaren botoia’ saka dezakezu gustura ez zauden espazio horretatik di-da batean ospa egiteko, eredu koitozentrikoarekin apurtzen da... Baina digitalizazioak dakartzan arazoak agertzen dira, intimitatea urratzearekin lotutakoak bereziki.

PORNO IZARRAK HAMABI URTEKO GAZTEEN AHOTAN

Eredu koitozentrikoaren aipuak bide eman digu pornografiaren solasteko. Ortizek azaldu digu hamabost urte bete baino askoz ere lehenago hasten direla gazteak “erotikaren zientzia fikzioa” kontsumitzen. Emaizek gaiaren bueltako kontzientziazio kanpainak egin ditu hainbat ikastetxetan, Zornotzako Andramari ikastolan adibidez, eta gurasoak ere interpelatu dituzte. “Jakitun izan behar dugu seme-alabei mugikorra erostean eduki horietara sarbidea ematen ari garela”. Pornografiaren kontzeptua oso zabala dela dio, baina nagusi den korronteak, mainstream edo hegemonikoa dei genezakeenak, eredu konkretuak erreproduzitzen dituela.

“Interneten garapenaren ondorioetako bat pornografiaren hedapen masiboa da, gizateriaren historian aurrekaririk ez duena”, irakurri digu Gasteizko zentroaren webgunean. “Jendeak ez zuen inoiz hainbeste material pornografiko kontsumitu, eta batez ere hain gaztetandik. (...) Eredu porno-erotikoa kalitatezko sexu-hezkuntza jasotzen ez duten pertsona, haur, nerabe eta gazte guztien jarraibideen liburu bihurtu da. Pertsona guztiok dugun dimentsio erotikoa, desiratzea eta desiraren objektu sentitzea ahalbidetzen diguna, pornoak irakasten digunaren imitazioarekin ari da garatzen. Gure gustuak eta desioak barrurantz begiratuaz deskubritu beharrean, pantailari egiten diogu so, zer desiratu behar dugun edo zer gustatu behar zaigun esan diezagun”.

Adibide baten bidez azaldu digu Ortizek: “PornHub webguneak urtero plazaratzen ditu estatistikak, besteak beste estatu bakoitzean gehien bilatutako hitzak zeintzuk diren jasotzen du, eta bitxia da, LHko 5. eta 6. mailetan gaiaz lanketa egiten dugunean,

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com



PORNOGRAFIA. Ortizek azaldu digu hamabost urte bete baino askoz ere lehenago hasten direla gazteak “erotikaren zientzia fikzioa” kontsumitzen.

estatistika horietan gehien agertzen diren aktoreak aipatzen dituzte ikasleek, duela urte batzuk Mia Khalifa eta azkenaldian Lana Rhoades. Hamabi urteko umeez jada ezagutzen dituzte

izen horiek. Edo galderak egiten dizkizute praktika analen inguruan, zeina den, hain justu, Pornhub-en jendeak gehien bilatzen duena”.

Bideoetan, bestalde, ez da agertzen

antisorgailurik, txorta-kideen artean komunikazioa apenas dago, desiren esplizitazioa ere ez –“tira, gizonena agian gehiago”–, emozioak ez dira islatzen... “Gazteekin komentatzen dugunean bikotekideari ‘zer moduz zaude?’ zenbatek galdetzen ote dion, erantzuna da: ‘Nola galdetuko diot hori, ze lotsa!’. Ez baitute bestelako eredurik. Helduok eman behar dizkiegu, sexu hezkuntza ardatz, munstro erraldoi baten aurka ari baikara borrokan”.

Bide horretan helburuak izan behar du gazteen ongizateak, teknologiarekin hartu-eman sanoa izateak. “Helduok begirada diferentea dugu, harremanak egiteko modu desberdinak bizi izan ditugu, eta geure esperientziatik ekarpen positiboa egin behar dugu”, diosku Ortizek. Beti ari bagara digitala denari garrantzia kentzen edo txarre-na azpimarratzen, teknologia etsaia bailitzan, gazteengandik are gehiago urrunduko gara. “Ulertu behar dugu mugikorra gauza asko direla: kamera, iratzargailua, harremanetarako espazioa, albisteak irakurtzeko, errebinkaziorako, iraultzarako... Ulertze-ardatz batetik jardun behar da, bai plano analogikoan, bai digitalean”. ●

Abendukoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Itxuraz, gerra hasi zenean Errusiak pentsatzen zuen di-da batean iritsiko zela Kievera, bere moldeko gobernu bat jarri eta aurrera aise egingo zuela. Zure ustez, zerk eraman zuen Errusia horren kalkulu eskasa egitera?

Aspalditik ari ziren inbasioaz hitz eginen, CIAk gertatuko zela esaten zuen, eta errusiarrek ere gerta zitekeela iragartzen zuten, baina ez zitzaien kasurik egin ez batari, ez besteari. Gero jakin zen ukrainarrek inbasio bati aurre egiteko moduko tropak pilatu zituztela Donetsk eta Luhanskeko mugetan. 2014tik ari ziren esaten otsoa etorriko zela, baina nik ere ez nuen espero gerra horren azkar etorriko zenik. Pentsatzekoa da errusiarren inteligentzia-zerbitzuek sekulako akatsa izan dutela.

Hala ere, uste dut errusiarrek badutela B plana, oinarritzen dena Mendebaldeko koalizioaren kontraesanen ez tandari itxarotean. Ukrainak Poloniara jaurtitako misilen kasuan atera dira kontraesan horietako batzuk. Eta, besteak beste, Europak behar duen gasaren ordainketaren inguruko kontraesanak ere hor daude.

Txanponak ere badu beste aldea: AEBek eta Europar Batasunak (EB) Errusiaren aurka hartutako zigor ekonomikoek txikitu behar zuten herrialdea, eta Errusiak asko sufritzen du, baina ez dirudi iragarri bestekoa izaten ari denik, eta gainera, EBk ere sufritzen du. Mendebaldearen akatsa izan liteke hori?

Ez dut uste. Uste dut AEBetako inteligentzia-zerbitzuak badakiela zein neurritan [Vladimir] Putinek jarri duen dena jokoan gerra honetan, eta Errusiak alde aurretik pentsatu duela nola egin aurre zigorre. Gerraren lehen asreetan sasoi bateko Kremlinologia ikusi genuen: Putin gaixo zegoela, minbizia-rekin, zoratuta zegoela, isolatuta, estatu kolpea emango ziotela... Baina edozein analista seriok badaki Errusia erregimen gisa eratu dela, lehengo polizia, indar armatuak, zerbitzu sekretuak, industria militarra eta aeroespaziala... ia ministerio guztietan daudela eta Putin dela horren guztiaren buru. Boris Ieltsinek guztiz suntsituta utzi zuen Errusia hura berreraiki zuen taldea da hori. Erregimen hori ez da eroriko edozein



Ukrainako gerra gelditu behar da, nahiz eta lurraldea galdu

Raúl Sánchez Cedillo
Komunen Fundazioko kidea

Esta gerra no termina en Ucrania (Gerra hau ez da Ukrainan amaitzen / Katakarak) liburua idatzi berri du Raúl Sánchez Cedillok (Madril, 1969). Ukrainarren defentsarako eskubidea ulertuta ere, gerra gelditzea aldarrikatzen du, hori delako modu egokiena ukrainar herriaren sufrimendua geldiarazteko. Hori delako, halaber, Europan emantzipazioaren aldeko indarrek egungo krisi handiei elkarrekin aurre egiteko aukera eraginkorrena.

 XABIER LETONA BITERI  JOSU SANTESTEBAN

eratan, AEBek badakite hori, baina ez gerraren bueltan funtsik gabe ari den analista armada horrek.

NATOn laguntza gero eta handiagoa da eta egoera korapilatzen joan da gerra hasi zenetik. Une oso konplexuak izan dira, azaroan Ukrainatik Poloniara jaurtitako misilena bezalakoa, adibidez. Agian lehen unea izan da hori AEBek eta NATOk atzera egin dutena [Volodymyr] Zelenskyren esanetatik, gerran sakontzetik... Zuhurtzia apur bat ikusi da azkenean?

Bai, hala dirudi. Uste dut gerraren birpentsatze estrategiko bat izan dela, eta bai Pentagonoari, bai Kremlinari ondo etorri zaiela su-eten txiki baten gisakoa

taularatzea. Zein da arazoa? Gatazka hau oso konplexua dela. Hor dago AEB, EB eta azken horren baitako Visegradoko Taldeak osatzen duen koalizioa. Polonia, esaterako, Moskuko erregimenaren simetrikoa da, baina beste aldean. Putini buruz esaten da atzerakoia dela, transformatioa, antikomunista... horixe bera da Poloniako Legea eta Justizia alderdia, baina Mendebaldeko aldean dagoenez, ez dago arazorik. Berdintsu gertatzen da Visegradoko Taldeko eskuin muturraren gotorlekuarekin. Eta talde horrek Errusiaren aurkako mendeku historikoa nahi du.

Gaur egun, mundu mailako gerra baten hasieran gaude, edozein unetan gerta liteke istripu bat –aipatu duzun misilena bezala–. Ukrainak uste du une honetan Mendebaldeak ezin duela bakarrik utzi,

hori Errusiaren aurrean amore ematea litzatekeelako. Horren aurrean, gerran hordagoka aurrera egiten ari da Ukraina, egoera oso arriskutsuak sortuz.

Baina gerra hau ezin da irabazle argi batekin amaitu, zentzu klasikoan. Mendebaldeak ezin du suntsitu potentzia nuklearra den Errusia, eta Errusiak ezin dio etengabe eutsi Ukrainan... Liburuan aipatzen duzu Minskeko Akordioetara jo beharko dela berriz lehenago edo geroago.

Gerraren lehen uneetan erabaki asko hartu ziren Errusiaren aurka, eta horretarako behar zen Errusiaren ahuldadearen kanpaina eta giroa sortzea, gerra azkar irabaz zitekeela zabalitzea... baina gaur egun hori ez dela egia ikusi da. Gerra hau



“
Nik esaten dut ez garela
nor esateko Ukrainiari
nola defendatu behar
duen bere burua,
haien lurraldea
inbaditua izan denean

ezin da Ukrainan bukatu. Zer da irabaztea Ukrainarentzat? Zer Errusiarentzat? Donetskeko eta Luhanskeko errepubliken gaia hor egongo da negoziagai, Krimeak Errusian jarraituko du seguruenik, Itsaso Beltzean itsas-armadak nola mugitu ahal izango diren...

Dena den, hori Pentagonoak pentsa dezake agian, baina European azken hamarkadetan gobernatu duen ikuspegi neoliberalak bestelako errelatoa eraikitzen ari da: gu etikan eta moralean nagusi garela Errusiaren aldean, baita teknologikoki ere, Ukraina inbaditua izan dela, Errusia zatika erortzen ari dela... guztiz ikuspegi faltsua. Zoritzarrez, zerbaitek elikatzen badu Putin, bere aurkako diskurtso hori guztia da. Mendebaldearentzat Putin da Hitler, eta Zelensky Banderazaleen [eskuin muturreko gidari ohia] txotxongiloa Errusiarentzat. Bi ikuspegi horiek eusten diote gerrari, eta gogor erreprimitzen dituzte gerrako mobilizazioen aurrean bi herrialdeetan dauden desertzio edo desobedientzia jarrerak.

Liburuan gerra gaitzesten duzu,

eta desobedientzia eta desertzioa proposatzen dituzu. Esan nahi du horrek Ukrainak ez duela bere burua defendatu behar Errusiako inbasioaren aurrean?

Nik esaten dut ez garela nor esateko Ukrainiari nola defendatu behar duen bere burua, haien lurraldea inbaditua izan denean. Hango herritarrek ikusi behar dute hori. Nik aurre egiten diot European eta bereziki ezkerrearen zati batean zabaltzen den honako ikuspegiari: bat, gerra hau irabazi egin daitekeela eremu militarrean; bi, NATOren sostengua garapenerako bermea dela, eta gainera, Errusiako erregimena ahultzen bada, hango indar ezkertiarren iraultzarako aukerak sortzen direla. Areago, Ukrainan ere gerta litekeela antzeko zerbaite; baina ez du zentzurik, besteak beste, argi ikusi dugu gerrarekin nola utzi dituzten legez kanpo ezkerreko hamalau alderdi, Errusiazale izatea leporatuta.

Ez, gerrak aurrera jarraitzeak sekulako hilkortasuna ekarriko du, Ukraina suntsituta geratzea. Suizidio bat da eta gelditzeko ahalegina egin behar da, nahiz

eta lurraldea galdu. Badakigu zer ekarri zuten Lehen eta Bigarren mundu gerrek, eta emantzipazioaren aldeko indarrontzat ezinbestekoa da eszenatoki horiek kostatzen ahala kostatzen saihestea. Beraz, indartu behar da desertzio eskubiderako eskaera, eta errefuxiatuak sostengatzeko politika. Horregatik, planteamenduak internazionalista izan behar du, gelditu dezagun denon arten gerra hau.

Gerra testuinguru horretan bake-konstituziogilea planteatzen duzu zuk. Zer da hori? Nola eraiki daiteke?

Hori jakin nahiko nuke nik [irria]. Gerra honek hiru geruza ditu: bata mundu mailako hegemonia sistemari dagokiona (AEB-Txina), bestea inperioen artekoa (NATO-Errusia); eta azkenik, askapen nazionalerako gerra bat (Ukraina eta Errusia), otsailaren 24ko inbasioari erantzuten diona. Gainera, mundu mailako egoera gogor baten testuinguruan gertatzen da gerra (pandemia, aldaketa klimatikoa, energiaren eskasia, elikadura eskasia...). Orduan, munduko ezkerrearentzat funtsezkoa da egoera horiei aurre

egin ahal izango dien subjektu berri bat sortzea, modu kolektibo batean erabaki dezan zer den berehalakoa, zer garrantzitsua, eta zertan ezin den atzera egin. Espero dezagun 1915ean gerraren aurka sortu zen III. Internazionala baino arrakastatsuagoa izatea.

Gerrak irauten duen egun bakoitzeko demokrazia gutxiago dago, ahalduztze gutxiago... Askoren arteko konbergentzia behar da (sindikalistak, feministak, udal mailakoak, LGTB kolektiboa, migratzaileak eta abar) ahal den lekuetan botere konstituziogile berriak eraikitze, komunak, sobietak... Harritzen nau nola ezker batzuk ez diren ohartzen bizi dugun inflexio puntu historikoaz, gainean daukagun mundu mailako gerra arrisku horrekin. Ondorioz, zera pentsatzen dute: bat, gerra hau iragankorra dela; bi, propagandak egia dioela; eta hiru, era guztietako protestei aurre egiteko, gerra-erregimenaren ondorioak ez direla indarrean jarriko haien herrialdetan.

2003an Irakeko inbasioa eman zenean sekulako mobilizazioak izan ziren. Orain, aldiz, ez da halakorik ikusi. Ezkerraren banaketa klabea da horretan?

Bai. Irakeko gerra erabat kriminala izan zen, guztiz ilegaltimoa, eta Europako ikuspegi liberala eta ezkerrekoa haren aurka jarri ziren, bereziki Espainiako Estatuan. Haren aurka zegoen, baita ere, nik neoestalinismo zontzia deitzen dudana, eta AEBen aurka zegoen guztia alternatiba gisa aldarrikatzen zuena. Horixe egiten zuen Saddam Husseinekin ere, nahiz eta hura komunismoaren aurka izan eta komunistak hiltzen zituen, edota alderdi komunista legez kanpo utzi zuen. Orain ere, ezker horrek, bai Espainian, bai Latinoamerikan, Ukrainako gerra Mendebaldeko indarren era-

“ ”

Gaur egun, mundu mailako gerra baten hasieran gaude, edozein unetan gerta liteke istripu bat, Poloniako misilena bezalakoa

soaren aurkako defentsa gisa irakurtzen du; Putinen erregimena erresistitzen ari dela eta, beraz, herri zapalduen gotorkua dela. Gezur handiagorik ezin da izan.

Europak AEBekin duen menpekotasun egoera ere maila guztietan handitu da gerra honekin.

Hori ikusten ari gara, bai. Bidenen administrazioa egiten ari den irakurketa goitik behera ari dira sostengatzen EBtik. AEB EBren trantsizio energetikoa kontrolatzen ari da, salneurri neurri-gabe koetan saltzen dion fracking-eko gasaren bidez. Bigarren Mundu Gerran Europak AEBekin izandako menpekotasun handi hura ekartzen du gogora oraingo egoerak. Energiaren kontrol horrek kontraesan asko sortuko ditu Europan eta, seguruenik, horien ondorioz Europan istiluak izango dira herritarren eta gobernuen artean.

Eskuin muturra ere zer gertatuko zain dagoela diozu liburuan. Eta agian zain baino gehiago ere esan liteke, hainbat estatutan gobernuak hartu dituzte eta.

Hor daude zain, bai, egoera konplexuen

irakurketa errazak eginez, errudunak seinalatuz eta nazionalismo erasotzaileak akuilatuz. Hor dago arrisku hori, eta horrek erantzun herritarra eta demokratikoa egiazki eragotzi dezake. Gertaeren jariora bere horretan uzten badugu, zerbait egiten ez badugu, horrantz goaz. Demokrazia eta diktaduren arteko marko bat saltzen du Mendebaldeko ikuspegiak, baina, egiazki, Lehen Mundu Gerraren antzeko egoera bat bizitzen ari gara.

Faxismoarentzat heriotzararako borondatea da garrantzitsua. Borroka eta heriotza egiaren une gisa eraikitzea, horri indar eta botere politikoa ematea. Etsai baten aurka armek balio dutenean, beti bukatzen dute irabazten armengatik hiltzeko prest direnek. Mendebaldeko faxismoa hala eratu zen: Lehen Mundu Gerrako borrokalari ohiak zeuden, traizioaren konspiranoia, nazioa berpizteko ametsa, eta bateraezinezkoa den barne etsaiaren eraikuntza. Orain ere narrazio horiek indartzen ari dira. Horren seinaleak dira aurrekontu militarren %2ko igoerak eta gertatzen ari den militarizazioa. Gatazka militarraz gain, info-gerra bizi dugu, tekno-gerra, eta ditugun zailtasun horiek guztiak Fuhrer bat deitzen ari dira, hil ala biziko egoera honetan etsaiaren aurkako borroka zuzendu dezan. Logika hori demokraziaren eta emantzipazio logiken guztiz aurkakoa da. Horregatik, gerra ahalik eta lasterren geldiaraztea faxismoei gudu hori irabaztea da, gerra haien eremu pribilegiatuan delako.

Bestetik, hori ere egia da, inbasioaren aurrean hor dago Ukrainaren askapen nazionalaren borroka, baina hori ezin da modu isolatuan irakurri, bloke eta sistemen arteko gerra testuinguru batean kokatu behar da, zeinaren lehen biktima ukrainar herria den, eta bigarrena, gerra zabaltzen bada, Europako gainerako herriak izango diren. ●



Jarraittu degigun euskeriaren etorkizuna idazten



Ali, Zaatari
kanpalekuaren
kanpoaldean.

HAUTSA FINKATZEN DENEAN

Jendearen joan-etorria etengabea da Jordaniako Mafrak erdiguneko kale eta dendetan 11:00ak jo berri direnean. Trafikoaren zalapartak eta martxa motelak gauzak patxadaz eta arnas sakon batek akuilatuta hartzera behartzen gaitu. Zaatariko errefuxiatuen kanpalekutik hamabost kilometrotara dagoen hiri honetan egin dugu hitzordua. Siritatik ihes egin eta hemen errefuxiatu diren lau pertsonarekin.

 JON GARATE ONDARRE ETA SHEFA'A QUDAH  JON GARATE ONDARRE

Zaatariko kanpalekua, Jordaniako iparraldean, izen bereko herrixkaren alboan eta ingurugiro gogorrek baldintzatutako desertu betean dago. Siriako gerratik ihes egindako milaka eta milaka lagun biltzen dituen eremu honek hamargarren urteurrena bete du uztailean. 2013ko martxoan, Baxar al-Assaden gobernuak Siriako hegoaldean abian jarritako kanpaina militarren ondotik, 156.000 pertsona biltzera iritsi ziren kanpalekuan. Gaur egun, UNHCR-Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoa- erakundearen estimazioen arabera, 80.000 bat pertsonak bizirauten du bertan eta, konponbide zabalago baten faltan, ez dirudi berehalakoan aldaketarik izango denik. Are gehiago, egoera betikotzera bidean doanaren zantzuak besterik ez dira ageri non-nahi.

Bizi duten egoera zaurgarria dela eta, elkarrizketatua izateko prest dagoen jendea topatzea ez da lan erraza izan. Errefuxiatu izaera aitortu zaien arren, asko eta asko beldur dira behin identifikatuak izan ezker Siriako Gobernuak beraien burua edo sorlekuan gelditutako familia arriskuan jar leza-keelako.

Ahmad -37 urte- 2013an iritsi zen kanpalekura. Lehen unean bakarrik iritsi bazen ere, bi hilabeteren buruan emazteak eta seme zaharrenak egin zuten bat berarekin. Ordutik familia handitu eta hiru alaba gehiago ekarri dituzte mundura. Urtebetez Amman hiriburuan bizitza hobea bilatzen saiatu zen arren, urtebeteren buruan kan-

palekura itzultzea erabaki zuen. Herrialdean dokumentazio legalik gabe ibiltzeak lan baldintzarik txarrenetarako aukera baino ez du uzten kasurik onenetan. Txarrenetan, segurtasun indarrek atzeman ezker, Jordaniako Azraq kanpalekuko Village 5 delako gunera eramatea ekar lezake. Azken hau ezaguna da, besteak beste, *Daesh* edo



Ahmad, Zaatariko kanpalekuaren kanpoaldean.



Majide eta Dilal,
Mafrag erdigunean
alokatuta duten etxeko
egongelan.

1990ean sortua



Aholkularitza zerbitzu
ezberdinak eskaintzen ditugu:

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legedia
- Lan esparrua

Urbietia, 15. Hernani.
943 33 12 67
Brintza.com

Estatu Islamikoarekin –edo UNHCRko bozeramaile batek adierazi zuen moduan “segurtasun eta nazio-segurtasun arrazoiengatik” – bat egindako 10.000 pertsona inguru biltzen dituelako presondegien moduko segurtasun neurrien artean.

Ali –31 urte, izen asmatua da anonimotasuna gorde nahi duelako– ere 2013an iritsi zen Zaatarira, ama eta anai-arrebekin batera muga legez kanpo zeharkatuta, beste askok bezala jaioterrian erregimenaren aurka egon izanagatik, ezin izan zutelako pasaportea berritu. Sirian iraultza piztearekin batera enpresaritza ikasketak eten eta kazetari lanetan hasi zen izenordea erabiliz. Ahmadek bezala, kanpamendutik irten ahal izateko bertako zuzendaritzaren baimena ezinbestekoa du. Baimena lortzea ez da edonolako izapidea, sarritan hainbat orduz itxaron behar izaten baitute. Errefuxiatu politikotzat du bere burua eta, bere lana medio, Siriakoek ez ezik Jordaniako zerbitzu sekretuek hainbat aldiz ikertu dutela dio.

Kanpalekutik kanpo, Mafrag hirian zitatatu garen pisan legalki bizitzeko

Alik Sirian hasitako kazetari lanari eustea erabaki du aukera agertzen zaionean. Hilabetean 300 dolar arteko ordainsaria lor dezake, baina batzuetan kanpamenduko kudeatzaileek dirua ukatzen diotela dio

baimena duten arren –2018tik Jordaniako Gobernuak osasun estaldura galtzearen truke onartzen die hala eskatzen dutenei–, Majide eta Dilal –29 eta 35 urte hurrenez hurren– familiaren egoera ez da askoz hobea. Bi

haurrekin batera partekatzen duten etxebizitza xumean, bien artean hilerero jasotzen dituzten 53 dinar jordanarrak –75 euro inguru– ez dira nahikoak alokairuaren 110 dinarrak ordaintzeko. Eta hori argindarra, ura, janaria, haurren beharrak eta gainontzekoak kontuan hartzen hasi aurretik.

2016az geroztik elkarrekin ezkondua dauden arren, Nazio Batuen Erakundeak ez die familia egitura aitortu, eta beraz, Majide oraindik Azraq kanpalekuan izen emanda bezala ageri da erregistroetan. Aitortza horrek dirulaguntzak zertxobait handitzeaz gain, burokratikoki gauzak asko erraztuko lizkieke. Hilero berritzera behartuta dagoen alegiazko lan baimen batek ahalbidetzen dio familiarekin etxe berean bizitzea. Baimena berritzeak kanpalekura hiru orduko joaneko bidaia egitea suposatzen dio eta, kasu batzuetan, egun pare batez bertan ezagunen baten dendan itxarotea –ez baitu honezkero berezko tokirik bertan– beste hiru orduko bueltako bideari ekin aurretik. Baimena eguneratuta ez izateak, beste behin atxiloaldia eta familiarekiko aldentzea ekarriko lizkioke.

Errefuxiatuen artean egoera ekonomikoak desberdinak diren arren, guztien egoera larria dela nabarmena da. Hau areagotu besterik ez da egin urteak aurrera joan ahala GKE txikiak desagertu eta gobernuetatik gertuen daudenak soilik gelditu diren heinean. Dilalen kasuan adibidez, kanpamentutik kanpo egonagatik, hilabeteroko oinarritzko esleipenetik kanpo ez du inolako laguntzarik jasotzen ez berak ezta familiak ere. Egunean eguneko lan puntualak aurkitzea da momentuz esperantza bakarra, eta hauek ez dira egunero agertzen. Uzta bilketa sasoia denean, zorteko bada, azeituna edo tomatea jasotzen zazpi dinar –hamar bat euro– lor ditzake hamabi orduko lan egunaren truke.

Aliren kasuan, Sirian hasitako kazetari lanari eustea erabaki du aukera agertzen zaionean. 2013an kanpalekuan uholdeak izan zirenean *freelance* modura jardun zuen *BBC*, *France24* edo *Al Jazeera* bezalako komunikazio taldeentzat. Ordutik hainbat GKErentzat egin du lana: IRC –International Rescue Comittee–, Save The Children eta UNICEF. Hilabetean 300 dolar arteko ordainsaria lor deza-

Majide,
Mafraq-eko etxean.



Alik, etorkizunari buruz
galdetuta, ez du bi
aldiz pentsatu behar
perspektibak laburbiltzeko:
“Kanpalekuak badu
etorkizuna, pertsonen
ordea ez”

ke kazetari lanagatik, baina batzuetan kanpamenduko kudeatzaileek dirua ukatzen diotela dio. Egutegiko egun esanguratsuetan, hamabi orduko lan jardunarengatik 50 dolar ere lortzera iritsi izan da, betiere ordaindu nahi izan diotenetan. Ahmadek jaioterrian piztutako futbolari bokazioari eutsi dio muga zeharkatu ondorengoan ere. Haurren taldeak entrenatzen ditu egun erdiz, ordainetan 100 dinarreko –145€ inguru– “laguntza” jasotzen du hileroko.

Egoera hauek guztiak urtetan hainbat aldaketa jasan dituen kanpalekuaren testuinguruan sortzen dira. 2013an, gerra luzerako zihoala ikusita, behin-behineko olanazko dendak karabana zuriekin ordezkatzeko hasi ziren. 25.000tik gora ezarri dira azken hamarkadan UNHCR-en datuen arabera. Horiek baldintzak zertxobait leuntzea ekarri dute, batez ere udako tenperatura jasangaitz edota neguko haize hotzaren aurrean. 2016ko azarotik martxan da inoiz errefuxiatu kanpaleku batean ezarri den eguzki-panel zentralik handiena ere. Berari esker 12 eta 14 ordu arteko argindar emaria dute. Kanpalekuko etorbide nagusietan hainbat negozio eta denda loratu dira horrela, gutxinaka asentamenduaren behin-behinekotasuna behin-betikotasunerantz gerturatuz.

Etorkizunari dagokionez ez dirudi norbanakoentzat gauzek hobetzeko itxura handirik dutenik. Dilal eta Majidek etxegabetze agindua mahai gainean dute jadanik, azken hiru hilabetetako gastuei aurre egin ezinda. Eta ez da okerre, Majidek zazpi hilabeteko haurdunaldia gaindituta duela ikusita. Legez kanpokoa den arren, haurra



Dilal eta Majideren errefuxiatu agiriak eta NANak.

etxean erditzea beste aukerarik ez du ikusten, ospitaleko kostuak kontuan izanda.

Ahmed eta Ali ere etsita ageri dira. Seme-alabek harrera herrialdean ikasketak egin ditzaketan arren, badakite, euren jatorria medio, ez daukatela lan

merkatuan sartzeko inongo aukerarik. Siriaren egungo egoera ikusita, itzultzea ere ez dago aukeren artean. Alik, etorkizunari buruz galdetuta, ez du bi aldiz pentsatu behar perspektibak laburbiltzeko: "Kanpalekuak badu etorkizuna, pertsonek ordea ez". ●

**Euskara neu naiz,
geu gara**

Euskararen Eguneko ekitaldia
udaletxeko plazan
Abenduaren 2an, 12tan

hik hasi
LIBURUAK

LIBURU
BERRIA



Biografia bat baino gehiago


***Hezkuntzari, herrigintzari eta euskalgintzari
eskainitako bizitza, guztiontzat eredu.***



EUSKAL PEDAGOGOA LOKATZETAN

Joxe Mari Auzmendi, Hik Hasiren arima, A-tik Z-ra

www.hikhasi.eus



Lady Chatterleyren eskandalu etekintsua



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Florentzia, 1928. David Herbert Lawrence (1885-1930) idazle ingelesak *Lady Chatterley's Lover* (Lady Chatterleyren maitalea) nobelaren hainbat bertsio idatzi zituen. Nobelak goi mailako emakume baten eta klase baxuagoko gizon baten arteko harreman sexuala kontatzen zuen modu esplizituan, eta egilea jakitun zen zailtasunak izango zituela lana bere horretan ohiko merkatuan argitaratzeko. Horregatik, 2.000 aleko edizio pribatu bat egin zuen Ingalaterran zituen harpidedunen artean banatzeko.

1932an, D. H. Lawrence hil eta bi urtera, Ingalaterran, bertsio moldatu bat argitaratu zuten, baimendua baina oso zentsuratua, artean bizirik balego egileak onartuko ez zukeen, Gerald Gould kazetariak orduan idatzi zuenez, "idazlearentzat garrantzi psikologiko izugarria zuten pasarteak kendu dizkiotelako".

1959an Argitalpen Lizunen Legea jarri zuten indarrean Ingalaterran. Lizuntzat jotzen ziren obrak argitaratzea kartzelarekin zigortzen zuen lege berriak, baina zigorra saihesteko baldintza bat ere jasotzen zuen: obrak balio literarioa izatea. Zirrikutua baliatuz, Penguin argitaletxeak apustu arriskutsua egin zuen orduan: *Lady Chatterleyren maitalea* ren hirugarren bertsioa, egilearen ustez biribilena zena, bere horretan argitaratzea. Kartzela zigorraz gain, dirutza zegoen jokoan, editoreek 200.000 ale prestatu baitzituzten -ezohiko inprenta batean, erabili ohi zuen inprentaren



DEREK BERWIN

ezezkoaren ondoren- eta abokatu talde garestia kontratatu baitzuten. Zenbait iturriren arabera, Allan Lane editoreak probokatu zuen epaiketa, hainbat ale hartuta zuzenean fiskaltzara jo zuenean. Penguinek xehetasun hau baieztatu ez badu ere, argi dago epaiketaren bila joan zirela eta lortu zutela, argitalpena 1960an epaitu baitzuten.

Epaia zain, marketin kanpaina behintzat eginga zeukaten, eskandalua egunkari eta aho guztietan baitzebil. Une batean Mervyn Griffith-Jones fiskal nagusiak zera galdetu zien zinpeko epaimahaikideei: "Liburu hau zuen emazteek edota mirabeek irakurtzea nahiko zenukete?". Eta, azkenean, nahi

eta espero ez zuen moduan erantzun zioten, 1960ko azaroaren 2an editoreak errugabetzat jo baitzituzten. Egun bakarrean agortu zen 200.000 aleko edizioa, eta hurrengo hiru hilabetetan hiru milioi liburu salduko zituzten.

Etekin ekonomiko handia atera zuen argitaletxeak jokaldi horri esker, baina etekin kulturala nabarmenagoa izan zen, Geoffrey Robertson abokatuak haxe esan zuen orduan: "Britainiar historian ez dago halako eragin soziala izan duen epairik". Handik aurrera zentsura asko baretu zen, eta fiskalaren amesgaiztoa beteaz, emazteek eta mirabeek lehen lizuntzat jotzen ziren balio handiko lanak irakurtzeko aukera izan zuten. ●



ANDREW MEDICHINI

Inklinazioa berriro bilutzuko dute

1616an Artemisia Gentileschik biluzik margotu zuen *Inklinazioaren alegoria*. 65 urte geroago koadroa Florentziako Buonarroti Etxeko sabaian zegoen, eta Michelangeloren biloba Leonardo Buonarrotik Inklinazioa estaltzea erabaki zuen, lizuna omen zelako; oihak batzuk margotu zizkionten. Egun, teknologiek oihalak kendu eta originala berreskuratzeko aukera ematen

dute, eta horrek eragiten duen dilemari irtenbide bikoitza ematea erabaki dute errestitutzaileek: jauregiko sabaian bertsio estalia jarri dute berriro, "itxura horrekin lortu duen balio historikoari eusteko"; baina digitalki oihalak kenduko dizkiote eta bertsio bilutzu birtual bat ere egingo dute, Inklinazioa Gentileschik margotu bezala ere ikusgai egon dadin. ●

KANPAINA BERRIA MARTXAN



DANI BLANCO

Etxe gehiagotan irakurriko da euskaraz

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Nire denboratxoa hartu dut jasotako erantzun guztiak irakurtzeko. Irribarra atera didazue, lagunok. Zuek, bai, ARGIAren azken kanpainarekin bat egin eta euskara praktikatzeko, irakurtzeko, ikasteko, gozatzeko asteak etxean jasotzea eskatu duzuen zuek guztiok. Ze polita den zuek denok euskaraz irakurtzea, zuekin harremana euskaraz egitea. Horregatik jarri du ARGIAk kanpaina hau martxan, Euskal Herri osoan Euskaraldia abiatu den honetan, euskarari bultzada eman asmoz.

XXI. mendean euskara oraindik ez da ofiziala Euskal Herriko hiru eremutan: Ipar Euskal Herrian, Nafarroa erdian eta hegoaldean, eta Trebiñun. Horrek ondorio zuzenak ditu herritarrengan. Gaztelania edo frantsesaren aurrean euskaraz aritzeko eguneroko zailtasunei, eremu horietan gehitu egiten zaie aitortza instituzional faltak dakarren guztia.

Euskara ikastea erabakitzen dutenek euskaldunon erabateko bultzada mere-

zi dute. Premiazkoa da euskara ikastea doakoa izatea, baina oraingoz ez da, eta euskara ikasleek, inork baino hobeto dakite horrek zenbat jende urruntzen duen euskara ikasten hasteko pausotik. Oso garrantzitsua iruditzen zaio ARGIAko lantaldeari gai honekin herri-presioa egitea erakundeei, bakoitzak bere lekutik behingoz alda dezaten hori. Honatx, bide horretan ARGIAk jarri nahi izan duen aletxoa, txikitik era- ginar asmoz.

Eskutitz bidez heldu zaie ehunka ikasleri mezua, buletin berezi bat ere zabaldu da, eta azken bi asteotan publizitatea egin da astekarian eta webgunean. Izan du bere oihartzuna, eta jasotako erantzunak ez dira gutxi izan. Ez hori bakarrik, kanpainak jende berri gehiago erakarri du harpidetza egitera “halako ekimenak bultzatzeko” –orrialde honetan, komunitateko kide berriei egiten zaien ongi etorrian irakur ditza- kezu zenbaiten arrazoiak–.

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



“Oso gustukoa dudalako eta ezinbestekoa dela ikusten dudalako. Langabezian daudenei ezezik, orain euskara ikasten ari direnei ere musutruk ematea ekintza zoragarria dela deritzodalako, eta horren parte izan nahi dudalako”

Lekeitioko Aitziber

“Egiten duzuen lan ARGIArria eta jardura eskertze aldera”

Orisoaingo Andoni

“Txalogarria iruditzen zaidalako egiten duzuen lana”

Hondarribiko Ainhoa

ZERGATIK EGIN DU HAU ARGIAK?

Zabaldutako gutunean azaltzen da: “Euskara *impasse* egoeran dagoela ikusten dugu kezka eta gure parte jarri nahi dugu, aurrera egiten jarrai deza- gun herri gisa. Kanpaina zehatz honekin, euskara ofizial ez den eremuetan euskara ikasten ari zareten lagunek ARGIAren bultzada sentitzea nahi dugu, guk egunerokoan ekarpen ekonomikoa egiten diguten Euskal Herriko milaka euskaltzalerena sentitzen dugun bezala.

ARGIAren proiektuan inbertitzen dugu indartzen jarraitzeko, eta nahiz eta merkatuaren legeen aurka joan halako erabakiak hartzen ditugu. Aurretik ere egin izan dugu beste kolektibo batzuekin –langabezian geratutako harpidedunak, presoak, ostalariak...–. Horregatik diogu, elkartasuna ardatz, komunitateak elkar eusten duela hemen, eta oraingoan, ehunka lagun euskaraz ikaste prozesua lagundu badezakegu, gu oso pozik sentituko gara”. ●

AZENARIOEN KOLORE FESTA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gustuko kolorerik bai? Galdetu azenarioari (*Daucus carota subsp. sativus*). Zuriak, gorriak, laranja, moreak... denetatik bada. Gaur egun eskura ditugunak ia denak laranja kolorekoak dira. Zergatik, ordea, denetatik baldin badago? Zerk eragin du guregana azenario gorriak besterik ez etortzea? Ustekabeko batek.

Duela 5.000 urte inguru, egun Iran-Afganistan aldea den lurretan, dagoeneko azenarioa lantzen zuten: azenario morea. Bere langintza handik datorrela dirudi, bertan dagoen azenario aukera handia dela tarteko. Itxuraz, hasieran ez zen sustrai lodikotea jaten; hostoak eta hazi lurruntzuak baliatzen zituzten, gaur egun bere senideei bezala: perrexila (*Petroselinum sativum*), mihilua (*Foeniculum vulgare*) eta sarpoila edo kuminoa (*Cuminum cyminum*). Sustraiak jaten ez zirenez, haren formak, tamainak, koloreak eta abarrek bost!

Gureganako migrazioa hasi zuen azenarioaren sustraiaren kolorea ez dugu ezagutzen, baina morea zela dirudi; moreak ziren haietatik gaurko laranjetarako bidea ez zen nolanahikoa izango. Tartean ezagutu dira zuriak, horiak, laruak eta laranja. Grekoek eta erromatarrek sustraia jaten zutela aipatzen dute. Arabiarrek sartu zuten penintsulatik barrena Europan gora. Baten bati entzun izan diot azenarioa “zain horia”-tik datorrela eta hortik joan zela gaztelerazko “zanahoria”. Gehienek diote, aldiz, “zanahoria” hori arabeen “isfannariya” edo “safunnárya” izenetatik eratorria dela.

Herbeheretarrek diotenez, beraiek bihurtu zuten azenario laranja laranja eta zapoetsuena. Agi danean XVII. men-



dean bere erretetxe “Orange-Nassau” zenaren omenez lortu zuten azenarioaren laranja kolorea laranjagoa egitea. Beheko herrialde horietatik kanpokoek diote ezetz, ez dela horrela, errege santu horiek geroagokoak direla, aurrez ere bazirela ondo laranja ziren azenarioak eta abar. Xextra laranja. Espainiarrek beretzat nahi dute lehen azenario laranjaren arrastoa, 1602ko Juan Sanchez Cotanen “Ehiza, barazki eta frutazko natura hila” margolanean.

Okasioak okasio, argi asko dago nagusitu den azenarioa laranja dela. Barietate landuenak, zabalduenak eta gozoenak

DURANGOKO AZOKAN

Ilargiaren egutegia

Jakoba Errekondok aurkeztuta

Abenduak 10 18:00etan

Ilargia eta landareak 2023 agenda

Jakoba Errekondok aurkeztuta

Abenduak 11 11:00etan

Sendabelar baratzea

Garbiñe Larreak aurkeztuta

Abenduak 11 17:30etan.

hala dira. Indarrean datoz, ordea, bueltan beste koloretakoak. Gero eta gehiago ikusiko ditugu sukaldarien eskuetatik hasi eta dendetako apaletaraino. Boladak bolada dira; lehen laranja nagusitu eta orokortu den bezala hor datorzkigu zuriztak, horixkak, laruak, ubelak, gorriak eta abar. Osasunaren, argaltzearen, hobeto ikustearen edo dena delakoaren izenean ederki salduko dizkigute. Izan ere, egia da: gordinik janda, bere fluorra dela medio, hortzak garbitu eta txantxarra saihestuko duzu, eta larruazala leundu eta zimurgabetzeko jarri azenario oreka. Dena dela kolorea. ●

URRITZA KOMUNITATEA

BESTELAKO BIZITZA BATERAKO
BASERRI KOLEKTIBOA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urritza: komunitatea, baserri kolektiboa” zioen karteltxoarekin egin nuen topo sare sozialetan, eta kartelaren atzean zegoen proiektuaz gehiago jakiteko gogoz bila jarri nintzen. Egitasmoa bultzatzeko lanean Jon Intxausti donostiarra eta Marcos Menendez barakaldoarra daudela jakin nuen. “Bi edo hiru urte generamatzan lagunak eta biok hiritik ateratzeko gogoz, landa eremura mugitzeko zerbaiten bila”, azaldu du hasierako ideia Intxaustik. Hiritik baserrira lekualdatzea baino gehiago, bizitzeko modu oso baten aldaketa da planteatzen dutena, dena dela.

Bizitza proiektua martxan jarri ahal izateko, baina, toki egoki bat topatzea zen lehen pausoa. “Guretzat oinarritzko irizpide batzuk izan behar zituen lekuak, hala nola, 600 metro inguruko altueran egotea, lursailean ur naturala izatea eta landatzeko moduko eremu zabala edukitzea”, dio Intxaustik. Hainbat lekutan bila aritu ondoren, azkenean, Bidania-Goiatzeko Urritza baserriarekin egin zuten topo; haien proiektua garatzeko baldintza guztiak betetzen zituen: espazio asko duen baserri handia da, 15 hektareako lursaila du iturri naturalekin... “Pentsatu genuen, ‘hau duk gure lekua!’”.

Momentuz bi familia besterik ez badira ere, azken hilabeteotan proiektua



zabaltzeko hainbat bilera ireki egin dituzte, eta bultzatzaileek beste sei familia Urritzara batzea nahi dute. “Hasierako proba fasean gaude orain, baina guztira 20 bat lagun hemen elkartzea da gure helburua”, azaldu du. Baserria ez dute oraindik erosi, urrira arte proba moduan ari baitira jabeekin adostutako prezioa ordainduz, baina datorren urtean komunitatera behar den jendea bildu eta erostea dute asmo. “Egin ditugun bileretara jende dezente hurbildu da eta interesa badago, beraz, hazia botata dago. Ea udaberrirako uzta jasotzen dugun”.

AUTO-HORNITUTAKO KOMUNITATEA, DIRURIK GABEA

Kaleko jendea naturarekin bat eginda bizitzera bultzatu nahi dute proiektu kolektiboaren bultzatzaileek. Haien oinarrietan hainbat puntu bildu dituzte: hezkuntza, elikadura, osasuna, baserriaren berreskuratzea, teknologia berriak bultzatzea eta dirurik gabe bizitzea, adibidez. Egungo jendartean esparru horietan guztietan gertatzen diren dinamikekin kritiko dira, eta esparru horiei begira proiektu eraldatzailea izan nahi dute. “Dirurik gabe bizi nahi dugu, gure jakiak sortuz, energia librean bidez funtzionatuz”, dio. Erronka ez da makala, baina nabarmentzen duenez, ez dute presarik, eta pixkanaka pausoak ematea da asmoa.

Ekoizpenari dagokionez, lursailean autokontsumorako nahikoa elikagai ekoiztea da haien asmoa, eta soberakinak beste komunitate batzuekin partekatzea: “Ez truke zuzenaren bidez, baizik eta sobran duguna emanaz eta falta duguna beste komunitate bati hartuz”. Nekazaritza biodinamikoa praktikatzan dute, eta aurtengo lehen uztarekin pozik gelditu dira. “Babarruna, kalabaza, patata, artoa eta bestelako barazkiak egin ditugu”. ●



ALDIRIETAKO TRENA

Helmuga: Durango

Hainbeste liburu publikatu da aurten ere Durangoko Azokara begira, Landakon itsu-itsuan sartuz gero galtzea erraza dela. Hiri ezezagun bateko estazio batean bezain erraza. Lasai, zerbitzu publikoa emateko gaude hemen: generoka antolatutako bost linea aurkezten dizkizugu, nobedade literarioetan barrena erosoago bidaiatu dezazun. Hala ere, begiratu bi aldeetara zeharkatu aurretik: liburu batek beste liburu bat ezkuta dezake.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

1. LINEA:

Fikzio espekulatiboa Durango planetan


Irudikatu XXIII. mendea: unibertso osoa euskaldunek gidatzen dute, inoiz ezagutu gabeko zoriontasuna eta ongizatea da nagusi. Baina erresistentzia antolatzen hasia da: garai bateko espainiar kulturaren gailentasuna berreskuratu nahi dute batzuek. Mikel Alvarez Sarriegiren **Euskalia** (Elkar) nobelaren abiapuntua hori da. Ironia handiz kontututako istorio honek darabiltzan erreferentzia kultural ugariei esker, irabaziko du irakurle bat baino gehiago.

Espazio-ontziaren hurrengo geltokia: **Ostadar 7310** (Denonartean) planeta. Iñigo Ibarrenaren liburu honetan, gizakien eta androideen arteko elkarbizitza harmoniatsua ikusiko dugu. Portaera txarre-

ko androideak birprogramatzen lan egingen du protagonistak. Batekin desberdin jokatuko duen arte. Kapitulu bakoitzean ezustekoak dauzkan eleberri honek, gaur egungo bizimodu hiperkonektatuak ekar dezakeen mundua aurreikusten du.

Katixa Agirreren **Berriz zentauro**-k (Elkar) hain urrunekoa ez dirudien etorkizunera garamatza, Mary Wollstonecraft idazle feminista ikertzeko Parisera doan Paula Pagaldai protagonistaren bidez. Zenbait plano tematiko eta tenporal uztartzen dira eleberrian: etorkizun hurbila, XVIII. mendea, generoen arteko mugak... Sexu birtuala, errealitate hedatua, bizi-pen areagotuak. Dena izango da oso desberdina etorkizunean. Edo ez hainbeste?

Asel Luzarragaren **Esan gabe doa** (Txalaparta) nobelan berriz, Asakayala herri askeen federazioa ezagutuko dugu. Tentsioz betetako egoeran dago, nazioarteko aliantza baten inbasio-mehatxupean. Lau pertsonaia nagusiren inguruan harilkatutako eleberriak etorkizuneko utopian pentsatzera gonbidatzen gaitu, fikzio espekulatiboa uztartuz errealismo magikoarekin.



2. LINEA:

Nobela beltz eta misteriozkoak: Landakoko hiltzailearen bila

Lehen kasua: Aingeru Epaltzaren **Erretzaile damutuena konpainia** (Elkar) nobelan aurkituko dugun Edu Saragueta ez da *Rock'n'Roll* eleberrian (Elkar, 2000) agertzen zen bera. 60 urte betetzetik gertu dago, ohitura osasuntsuagoak ditu, baina beste guztia nahi-ko desastre: langabezia, bakardadea, Interneten ligatzeko saiakerak... Komunitate islamikoari buruzko erreportaje sorta bat eskatuko diote eta orduan... gauzak gertatzen hasiko dira.

Euskal thriller-gintzaren maisuetako baten nobedadea ere badugu: Alberto Ladrón Aranak 1948ra garamatza

Ilunpeko zelataria (Elkar) nobelan. Hamabi urteko bi mutil kozkor Iruñean. Haietako batek zineman aurkitutako musuzapiak abiatuko du ekintza. Bahitutako neska batena dela sumatuta, haren bila abiatuko dira. Idazlearen aurreko lanen aldean, hemen nabarmenagoa da fantasiaranzko joera, hain bereak dituen elkarrizketa biziak, suspensea eta abenturak mantenduta, betiere.

Eta **Amaieur bat urtero** (Amaieur Gaztelu Elkartea / (H)ilbeltza) nobelarekin itzuli da genero beltzera Jon Alonso. Baztanen grabatzen ari diren film bat da abiapuntua: amodiozko istorio gartsu bat, duela 500 urteko Amaiurko setioaren garaian girotua. Ustekabeko heriotza batek gertakariak azkartuko ditu, intrigaz beteriko istorioari bide emanez, Alonsok genero honetan idazten duenean batere bridatzen ez duen umore-senaz lagunduta.

Generoan debuta egin du, aldiz, Andoni Agirrezabalak **Etxe berdea**-rekin (Erein). 2005eko urriaren 29ra eramango gaitu, zenbait hilketa izan ziren herri batera. Polizia etorri zen, baina fundamentu handirik egin gabe itzuli zen etorritako bidetik. Herriko aguazilak, ordea, bere kabuz iker-tzen jarraitu zuen. Lan hori izango du irakurleak esku artean: gertatu zenari buruzko lekukotasunak, *found footage* estiloan aurkeztuak, ahots ugariz eta kontakizun biziz osatutako nobela batean.

Azken bala, Italiatik inportatutako itzulpen bat: Massimo Carlotoren **Agur, maitea, ikusi arte** (Txalaparta, Koldo Bigurik euskaratua). Ezker muturreko militante ohia da Giorgio Pellegrini. Hego Amerikan urteak igaro ondoren, Italiara itzuliko da, baina ez du kartzelan bukatu nahi. Horregatik, aspaldiko kamaradak salduko ditu. Ustelkeria, kritika soziala eta indarkeria barra-barra.



3. LINEA:

Pentsatzeko txokoa: aurtengo zenbait saiakera

Iñigo Antsorregi triste sentitzen hasi zen 2019an. Emozionalki nekatuta. Une batetik aurrera, nekea min bihurtu zen. Barruan zerbait apurtu zitzaion. Pentsamendu suizidak edukitzera ailegatu zen. Lanketa sakonaren ondoren, zulo hartatik aterata, bizi izandakoa kontatu du **Nire minaren etxean** (Elkar) saiakera autobiografikoan, antzeko egoeran egon daitezkeenentzat lagungarri izan daitekeelakoan.

Sexu-langileak dira Juno Mac eta Molly Smith, **Putazikinak** (Katakarak) liburuaren egileak. Gaizki ordaindutako lanetatik pasa ondoren iritsi ziren prostituziora eta horrek politikoki ere aldatu zituen, feminismo liberaletik posizio komunistetara gerturatzen hasi baitziren. Amaia Astobiza Uriartek euskaratu du ingelesetik sexu-langileen eskubideen aldeko borroka ardatz duen saiakera hau.

Ane Garcia Lopezek itzulita berriz, euskaraz irakur dezakegu **Maskulinitateak** (Elkar). R.W. Connell soziologo

australiarraren lan honek galdera zentral bati erantzunak eman nahi dizkio: genero-berdintasunaren aldeko borrokan, zein da gizonen lekua? Obra honi egozten zaio "maskulinitate hegemonikoa" kontzeptua lehen aldiz erabili izana. Elkarrek eta Jakinek abian jarritako Eskafandra sailaren azken emaitza da.

Leire Milikua Larramendiren **Lur gainean, itzal azpian** (Susa) liburuak berri-iz, emakume baserritarrak ditu ardatz. Haien subalternitate hirukoitza ikusiko du irakurleak: emakumeak, nekazariak eta landatarrak dira, patriarkala, kapitalista eta hiritarra den mundu -eta Euskal Herri- batean. Sintesi-gaitasun handiz idatzitako saio hau gehienon buruetan instalatuta dauden aurreiritziak berri-kusteko baliagarria izan daiteke.

Aiora Zabala Aizpururen **Natura gure esku** (Alberdania) saiakerak berriz, puripurian dagoen klima aldaketaren gaiari buruz jarduteko gako batzuk eskaintzen ditu. Funtsezko ideia honakoa litzateke:

posible da larrialdi klimatikoa eta bioaniztasunaren galera bezalako problemek askatasun handiagoz pentsatzea; eta horrenbestez, baita hartu behar diren erabaki politikoe-tan ere sormen handiagoz jokatzeko.

Gure buruaz pentsatzeko metodo klasikoetan klasikoena da elkarrizketa, Sokratesen garaitik. Agustin Arrieta Urtizberearen **Gaueko eztabaidak** (Erein) liburuan, kongresu batera joan diren lau gaztek elkar ezagutuko dute eta gauero piztuko da haien arteko debatea: egia, zientzia, erlijioa, maitasuna, sexu-generoa, artea, fikzioa, balioak, zoriontasuna... Arrietak bere ibilbidean landu izan dituen bi generoak, fikziozko narratiba eta saiakera, txirikordatuta agertzen zaizkigu lan honetan.



4. LINEA:

Komiki-azoka ere bada Durango

Sei esku elkartu dira *Ni ez naiz Mikel Laboa* (Elkar) komikia gauzatzeko: Harkaitz Cano, Unai Iturriaga eta Joseba Larratxe. Donostian jaiotako musikariari buruzko lan biografiko honek hasieratik deituko du irakurlearen arreta, izan ere, istorioaren lehenbiziko orrialdeak *western* baten moduan kontatuta daude.

Komiki klasiko bat, Art Spiegelmanek 1991n argitaratu zuen *Maus* (Astiberri), euskaraz irakur dezakegu orain. Julen Gabiriak itzultitako lanak bi istorio paralelo kontatzen ditu: Spiegelmanek bere aitarekin daukan harremana; eta aita nazien kontzentrazio-esparru batean bizi izandakoak. Pertsonaia guztiak giza-itxurako animaliak balira bezala irudikatu zituen Spiegelmanek, horrela Holokaustoa gauzatu ahal izateko ezinbestekoa izan zen desindibidualizazioa islatuz.


Norbanakoaz dihardu, aldiz, Usue Egiaren *Ura leporaino* (Denonartean) lanak. 30 urte inguruko emakume baten bizipenak aurkituko ditu irakurleak, erreferentzia kultural ugari zeharkatzen duten komiki honetan. Frustrazioak, umorea eta fantasia, besteak beste Chavela Vargasen, Henry Purcellen edo Nacho Vegasen kantekin gatz-ozpinduta.

Italian argitaratu eta gutxira publikatu da euskaraz Zerocalcaren *No sleep till Shengal* (Farmazia Beltza), Koldo Izagirreraren itzulpenari esker. 2014an ISISen genozidiotik ihes egitea lortu zuten ezidiarrei buruzko kronika da. Infernuko zulotik atera bakarrik ez, eze-rezaren erdian antolaketa sozial berri bat asmatzeko gai den herriari eman dio protagonismo osoa komikilari italiarrak.

Adur Larreak berriz, iraganera garamatza *Lurbintoko ohoinak* (Elkar) komikian. XVIII. Mendeko Konbentzio Gerra amaitu berri da eta galtzaile suertatu direnetako batzuek, beren herrietara itzultzean, panorama samingarria aurkitu dute: etxeak erreta edo okupatuta, haien lurrak besteen esku... Baina armak daukate. Eta badakite nola erabili. Gure historiaren alderdi ez oso ezagun baten berri eman digu komikigile bizkaitar-lapurtearrak bere azkeneko obra honetan.

Bertsoak izan ditu abiapuntu Ainara Azpiazu Adurizek *Utzi azalari* (Dobera) komikian. 2017ko Txalpelketa Nagusiko Irungo saioan Maialen Lujanbiok kantatu zituenetatik abiatu da, irakurlea pertsona trans ez-bitar baten azalean sartzeko. Trantsizioan dauden gorputzez eta bizitzez hausnartzeko aukera ematen digu hernaniarraren lan berriak.

Trantsizioan ez, baina aldaketa batean dago Bruno Duhamelen *Aztarna faltsuak* (Harriet) komikiko protagonista. Hamabost urtez AEBetako Mendebaleko ikuskizun batean Johnson Marshallaren rola jokatu du, baita lana serioegi hartzen bukatu ere: turista baten aurrean bere arma atera zuen eta orain langabezian dago. Dena galdu ondoren abiatzen duen bidaia-aren kontakizun hau komikigile frantziar zailduaren azkenaurreko emaitza da. Aukera ona, bide batez, Harriet argitaletxearen katalogo zabalean murgiltzeko. Aurten manga japoniarrak euskaraz argitaratzen ere hasi dira: Tomomi Usuren *Cube Arts* ere aurkituko duzue haien standean.



5. LINEA:

Ipuin batean bezala

Karlos Linazasororen *Samuel eta Slawo* (Alberdania) *tour de force* bat da, 86 istorio 150 orrialdetan, berarengan hain ohikoak diren umore beltza eta absurdorako joera uztartuta. Tituluak berak iragartzen duen moduan, Beckett-en eta Mrozek-en literaturen eraginpean idatzitako istorio hauek ipuingintza kontzentratuaren erakustaldi bat dira.

Arrate Egañaren *Itzalen distira*-n (Erein) prosa zuzenez eta debaldeko apaindurarik gabe idatzitako istorioak aurkituko ditu irakurleak, erretratu sozial konplexuak osatzen dituztenak. Besteak beste, 2013an Bilboko Gabriel Aresti ipuin lehiaketa irabazi zuen *Marquez* narrazioa dago bilduma honetan.

Iban Zalduak irailean aurkeztu zuen *Ipuina engainua da* (Elkar), zeinean uztartu dituen bere idazkeran preziazatutako ziren osagaiak –amaiera borobilak, tonu ironikoa–, aurreko liburuekin alderatuz berritzailea den arnas luzeko narrazioranzko joerarekin. Mota ugariatako istorioak dira, estilo pertsonal eta identifikagarri batek harilkatuak.

Aurrekoak bezain emankor izan gabe, zerbait argitaratzen duen ba-

koitzean zeresana emateko gaitasuna dauka Jon Benitok. *Lagun minak* (Farmazia Beltza) liburuan poemak eta ipuinak uztartu ditu, gure garai honi egokitutako idazkeraren bila egindako ariketa literarioan. Pertsonaia hautsiak aurkituko ditu irakurleak; eta estilo narratibo konbentzionaletatik harago joateko etengabeko ahalegina.

Jatorriz euskaraz argitaratu ez diren liburuaren artean, lehenbiziko aldiz bi autore katalan euskaraz irakurtzeko aukera: Victor Català pseudonimoarekin idatzi zuen Caterina Albert i Paradisen *Atsoa* (Txalaparta) da horietako bat. Hamar ipuin biltzen ditu liburuak, Catalàren hasierako modernismotik haren testu berantiarretarainoko bidaia proposatuz.

Idazle katalanen azken labealdian egin da ezagun, bestalde, Irene Pujadas. Haren *Puskak* (Igela) 21 ipuinez osatuta dago eta Amaia Apalauzaren itzulpenari esker daukagu euskaraz. Eguneroko bizitzakoak diruditen pasadizoak kontatu ditu Pujadasek, baina egunerokotasun hori puskatu egiten da, oso erosoak ez diren egiak azaleratuz.



Literatura Unibertsala bilduman berri, Sherwood Andersonen *Winesburg, Ohio*, Joannes Jauregik itzulita. Liburu hau da agian Andersonen lanik goraipatuena eta eragina izan zuen AEBetako ondorengo idazle inportanteengan –Faulkner, Hemingway–. Herriko bizimodutik ihes egin nahi eta ezina maiz agertzen da 21 ipuinotan; eta liburuak, oro har, “groteskoaren begiradak” ezaugarritzen du.

Ezin aipatu gabe utzi ipuingintzari dagokionez Alfa eta Omega den idazlea: Anton Txekhoven *31 ipuin* (Elkar) euskaratu ditu Iker Sanchok. Notizia ezin hobea izan da: idazle errusiarraren istorio umoretsu bezain sakonetan murgiltzeko aukera berritzeaz gain, ipuina zergatik ez den nobelaren ahizpa txikia ikasteko 31 arrazoi on –gutxienez– eman dizkigu. ●



Goizper Group
Elkarlanean garatzen



Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofia parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.

Industrial

Ihinzadura

Bioteknologia



www.goizper.com



LIBURUA

Mugako kontuak mugan



BETI MUGAN

RUBEN RUIZ

ELKAR, 2022

XABIER ETXANIZ ERLE

Bigarren Gerra Handian kokatzen da Ruben Ruizen nobela hau, 1941 eta 1944 bitartean, hain zuzen. Eta hegazkinlari aliatuak nazien lurretatik atera eta berriro Britainia Handira itzultzen zituen Comète sareaz ari zaigu; baina ez horretaz bakarrik, edo, hobe esanda, hori baino gehiago euskal mugalarri eta kontrabandisten istorioez ari zaigu obra.

Ruben Ruizek erritmo biziz, kapitulu laburrez, Comète sarearen gorabeherak kontatzen dizkigu (agian informazio historiko gehiegi emanez batzuetan) eta horren parean Mattin gaztearen istorioa azaltzen zaigu. Umezurtz geratu ondoren Baztanen dagoen osaba kontrabandista baten babesean bizi den Mattinek muga zeharkatzearen arriskuak eta sabeleko kili-kiliak erakutsiko dizkigu, nerabezarotik helduarora nola pasatzen den eta baita bestaldean bizi den Amelierekin duen harremana ere.

Abenturazko nobela bat da *Beti mugan* hau, nobela historikoa ere bai, inizatikoa ere badugu eta irakurlearen irribarrea eta malkoa bilatzen duen obra. Irribarrea


kontrabando istorio batzuekin, malkoa mugan nahiz nazien jarraipenagatik hiltzen direnekin. Egileak ederki egituratu du nobela irakurlea irakurtzen animatzeko, Mattinen garapenaren lekuko izateko, bai eta Amelierekiko maitasun istorioarena ere; baina, horrez gain, irakurlea Comète sarera hurbiltzea lortzen du, haien lanera eta sufrimendura. Guzti hori, garai hartako Baztango bizimoduan kokaturik, kontrabandisten berri emanez, zer nolako harremanak izaten ziren ipar eta hegoaldekoen artean, Guardia Zibilarekin, edo kontrabandisten eta baserritarren artean.

33 kapitulutan banaturiko nobela dugu; kapitulu bakoitzak gertatuko denarekin zerikusia duen esaera zahar bat duela izenburu. Eta narrazioa bi plano ezberdinetan egoteak, amaieran bat egiten duten bi istorio kontatzeak, gertakariz eta ekintzaz beteriko obra izateak animatu egiten zaitu aurrera jarraitzera, liburua osatzen duten 250 orrialdeak irakurtzera, irakurle gazte nahiz heldu izan, nobela hau bera ere dagoelako mugan. ●

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



MUSIKA

Xoratuko zara

XALBA RAMIREZ

Bai, erraten den bezala, lehengo lepotikan burua". Olaiaren ama, amona, izeba, bizilagunak ematen dio izena diskoari. Sustraiaietatik datorkio arima lan honi. Gutxi gorabehera jakina zen, jarraitzen zutenentzat behintzat, Olaia Inziarte egiten ari zena berezia izango zela. Duela urtebete atera zuen disko honetan gordetzen den *Martizianoak*, eta ordutik ari da buru-belarri, bihotz eta eztarri, lan hau garatzen.

Ahotsaren potentzia eder erabilia da, indar uneak indartsuak direlako oso. Lu-xatu ere egiten du ahotsa, tarteka Eneritz Furiyaren estiloan, giltza martzialaren pare aldatuz esperotako norabidea. Txistukatzen du fandango bat Pettirekin, rantxera bat dirudien zerbait han, eta bals bat, Joseba Tapia eta berarekin batera abesten duen ahots *ensemble* goxagarri eta trebearekin (Leire Berasaluze eta Kristina Aranzabe, alegia).

Oso popa diren uneetan kolorea asmatzen du Inziartek. Esan nahi dut, hizkuntza gisa mugatua dela popa, eta are, pop-rocka eta, hala ere, Olaiak badakiela handik eta hemendik topatzen zapoak. *Zure mina* abestian saiatzen da beste pa-

leta bat gehitzen haizearekin, bateriak aurreratzen, garapena garatzen.

Martiziano bat da Inziarte. Zentzu guztietan uste dut. Barrura begiratzen ulertzen du kanpokoak; eta lasai, barkamenik beroenak ematen ditu ulertzen ez duenarentzat. Baina badu belaunaldia- ren berezko zerbait, eta bada aipatzen ari garen nahaste hori. *Behe Klasekoa*, *Xagua eta Katua Vol II* eta *Berak Badaki* abestietako ekoizpenaren interesgarri- na hibridazioa baita. Hibridazio akaso neurtua, baina hibridazioa. Billie Eilish ahaztu xamarra dagoen arren, ildo hori du Inziartek: kantaren zerbitzura jartzen eskura dituen iturri guztiak. Iturri ho- riek pop komertzialetik kantu herrikoira doaz, eta dance elektronikotik eta uste dut jazzetik pasatzen ari direla. Eta sus- moa dut pasako direla gero eta gehiago. Ez dezagun ahaztu Olaiaren lehen diskoa dela hau. Helduegia lehena izateko, eto- rriko denarekin ilusioa pizteko modukoa.

Galtzerdi zulatuek istorio hobeak di- tuzte baino entzule onez eskas gaude. Ildo horretan bota zuen Ben Yartek arazoa ez dela eszena, baizik eta, artistek ez zu- tela eskaintzen garaia behar zuena. Eta



LEHENGO LEPOTIKAN BURUA

OLAIA INZIARTE

AUTOEKOIZPENA, 2022

behar denaren lehen urratsa, zalantza- rik ez, zintzotasuna da. Inziarteren kanta guztiak dira sinesgarriak, eta hori da kan- ta bati eska dakiokkeen behinena. Beste guztia bidean da.

Gainontzekoen minarekin kontuz ibili, baina baita ere ibili kantuz. Olaia bada sendagai moduko bat, bada gereziak aho- ra eramatearen parekoa. Lasaigarri bat: oraina etorkizuna dela ziurtatzen duena. Belaunaldi honek, bere minez jabetuz, badakielako zer nahi duen. Olaiak baze- kien, bai, xoratuko gara. ●

HIRITIK AT

Lurraldegintzarako
koordinatu
berriak



BDSkoop, IRUN | Wikitoki, BILBO
622609129 | hiritik-at@hiritik-at.eus
www.hiritik-at.eus



HIRIGINTZA
—
TOKIKO GARAPENA
—
AHOLKULARITZA
ESTRATEGIKOA



Marra urdin pintxeei ez!

IÑIGO SATRUSTEGI JOSU SANTESTEBAN

Badira aste batzuk auzo honetan ezohiko bizia dagoela. Kontzertuak, giroa eta beste aspaldiko partez, Txantreako agendaren parte dira. Asteburu honetan zita dugu, berriz ere, elkartasunetik eta parrandatik asko duena: Margolari eguna.

Artistikotik ordea gutxi du ospatzeko. TAOk urtebete egin du Txantreako kaletan, eta urtebete da, beraz, auzokide talde handi batek erresistentzia eta as-mamen handiz marra urdinen ganean pintura zuria jarri zuela. Urtebete, horietako batzuk zifra handiko kalte-ordainekin isundu zituztela. Isunok pagatzeko jaialdia da, beraz, larunbat honetakoa, eta Zopilotes-ek girotuko du iluntzea.

Sarrerak agortutak (sic) daudela jartzzen du kartelean. Ateak ireki orduko

inor gutxi bildu da larunbat arratsalde euritsuan Auzotegira. Atenenak musika jartzaileei egokitu zaie aretoa bertzea, baina barrako txandalariok baino ez gaude hasieran. Ilundu orduko hasi dira gerturatzen lehenengo festazale solidarioak.

Ez da sekretua nafarroï mexikar rantxerak gustatzen zaizkigula, eta are gehiago Zopilotes baldin badira. Kontzertu luzea izan da, eta arreta gehiegirik ezin jarri ibili gara kaña, kalimotxo eta konbinatuak prestatu bitartean. Kanta ezagun asko, mitikoak. Eta belarrrira jo didan berriren bat ere bai. Aspaldi ez nituela jarraitzen, baina beti bezain alai (balada tristeren bat kenduta, noski) eta beti bezain erromantiko aritu dira.

LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS

NOIZ: azaroaren 26an

NON: Auzotegi Kultur Etxea
(Txantrea)

Konejo abeslariak ez du hutsik egin. Espero genituen haren hitz batzuk, abesti eta abesti artean: *Auzo pintxe pendejo borrokalaria honetan...* Badaki ego handia duen auzoko bizilagunei are harroago egon daitezen esan beharrekoak esaten, txantrearrak are txantrearrago egiten.

Bukatzerako kultur etxea lepo dago, auzotarrez nahiz kanpotarrez. Bero handia egiten du kanpoko eguraldi makurraren aldean. Eta lan handia behar dute antolatzaileek entzuleak mugiarazteko. Elkartasun jaialdia parranda zoro bihurtu da kasik. Baina esker onez agertu dira isundutakoak, izandako harrera beroarekin eta musikariekiko esker onez. Zorte pixka batekin, auzoak bizia izaten jarraituko du hurrengo hilabeteetan ere. Ez daldila izan halako arrazoiengatik ordea. ●



Bertso-zopa

Osatu Julio Sotok 2020an Oiartzunen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*. Gaia: Gabonak egun zailak izaten dira familia askorentzat.

Dolu bidea den desertua
gurutzatzen _____
bere gogoan pentsamenduak
_____ dira hilenak
baina nahiz eta egutegiai
begiratzen ari denak
antzeko xamar nabarituko
ditun egunik _____
egon badaude egun batzuek
bereziago _____. (bis)

Izan daitezke herriko _____
izan leike Olentzaro
Aste _____ Pazko bazkari
edo bere urte aro
egun horiek bi _____ dutela
ni're probatuta nago
nahiz eta _____ izaten zaizun
sekula baino minago
falta den hori sentitzen duzu
inoiz baino _____. (bis)

Oroitzapenik naiz bapatean
ezin den _____ ke
minari eutsi nahi zenioke
baina _____ behar zuke
egunerokoak irensten zaitu
behin pasaz hiru-lau _____
Hargatik data berezi hauek
txarrak direnik ez _____;
orbain txiki bat daramazula
_____ dizute. (bis)



DANI BLANCO

A	H	I	K	P	O	R	R	M	S	P	H	J	R	K
K	U	M	T	R	S	J	G	G	I	B	H	G	P	X
O	D	X	O	S	H	M	M	E	T	N	U	Z	N	X
R	A	E	Z	I	R	F	S	X	A	A	A	Z	R	H
D	B	J	T	F	H	E	A	I	P	T	T	D	C	U
A	I	L	Z	L	U	S	N	C	A	I	I	P	S	R
R	L	G	J	E	J	T	T	B	A	X	H	B	R	B
A	E	E	B	R	S	A	U	A	I	H	Z	I	U	I
Z	N	H	J	A	X	K	K	A	B	Z	N	L	S	L
T	A	I	X	B	A	U	O	L	L	R	I	A	S	A
E	K	E	T	A	J	P	A	K	S	D	D	K	H	G
N	I	N	F	T	A	E	H	Z	S	G	E	A	K	O
U	E	A	L	R	T	O	N	B	X	A	N	T	A	H
U	Z	K	O	S	D	I	R	E	N	A	K	U	I	L
Z	K	N	U	O	I	G	M	I	H	T	E	G	L	D
U	H	L	C	Z	S	I	Z	H	U	R	T	E	O	S

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



Eskandinaviar mitologiako jainkoa. / Lokarri sendoa.

GOITIK BEHERA:

1. Italiar. **2.** Arabako hondartza (argazkian). **3.** Lozorro. / Telebista italiarra. **4.** Azken eta hirugarren bokalak. / Nekagarri. **5.** Arrantzarako tresnak. **6.** Etzan. / Einsteinioaren ikurra. **7.** Tik..., erlojuaren hotsa. / Araba eta Nafarroa zeharkatzen duen ibaia. **8.** Libreak. **9.** Borborrean.

EZKER-ESKUIN:

1. Elurrezko etxe. / Eta abar (laburdura). **2.** Taoismoari dagokiona. **3.** Ardi hitz-elkarketan. / Bizkor. **4.** Laian egiten duena. / Sailburu (laburdura). **5.** Bi erromatar zenbakiz. / Zentzudun. **6.** Bihotzeko arteria. / Bakarrik. **7.** Ahalbideak. **8.**

Sudokua

ERRAZA


	3	2	6		7			9
	6		3	2	9			7
			5	1		2		
	5						8	1
2			1			9	6	
9	1		4	8	6	7	2	
	4		8	6		5	7	
6	2	7	9		3	1		
1	8	5		7		6	9	

ZAILA

		8		5				
	1		8		3	4	2	
	9						5	
1	6	4		2				9
					9	8		
						5	6	4
8			2	6	1			
	4				5		3	6
6	7							

EBAZPENAK

Dolu bidea den desertua gurutzatzen dabilenak/bere gogoan pentsamenduak/erabat dira hilenak/baina nahiz eta egutegiai/begiratzen ari denak/antzeko xamar nabarituko/ditun egunik/gehienak/egon badaude egun batzuek/bereziago direnak. // Izan daitezke herriko festa/izan leike Olentzaro/Aste Santuko Pazko bazkari/edo bere urte aro/egun horiek bi alde dutela, ni're probatuta nago/nahiz eta mina izaten zaizun/sekula baino minago/falta den hori sentitzen duzu/inoiz baino hurbilago, // Oroitzapenik naiz bapatean/ezin den bilakatu ke/minari eutsi nahi zenioke/baina bizi behar zuke/egunerokoak irensten zaitu/behin pasaz hiru-lau urte./Hargatik data berezi hauek/txarrak direnik ez uste./orbain txiki bat daramazula/akordarazten dizute.



6	7	5	3	6	5	5	2	8	1
2	4	1	7	8	5	9	3	3	6
8	3	6	9	6	8	3	8	3	6
6	8	8	6	3	1	7	4	4	5
6	7	2	7	2	8	7	5	6	4
1	6	4	5	2	8	3	6	1	2
1	6	4	5	2	8	3	6	1	2
8	5	8	5	6	9	6	6	6	4
5	1	6	6	9	3	4	2	7	3
7	2	2	8	4	5	6	1	9	3

ZAILA

1	8	5	5	2	7	4	6	9	3
6	2	7	6	5	3	1	4	8	3
3	4	8	8	6	1	5	7	2	2
5	3	4	8	6	7	2	5	5	5
9	1	3	4	8	6	7	2	5	5
2	7	1	8	3	6	5	6	6	4
4	5	6	6	9	6	9	6	9	6
4	5	6	6	9	6	9	6	9	6
7	6	4	5	1	8	2	3	3	6
8	6	1	3	2	2	4	6	4	5
9	3	2	6	4	7	8	1	1	9

ERRAZA

BORBORREA.
ES. 7. TAK. EBRO. 8. ASKEAK. 9.
ASTUN. 5. SAREAK. 6. ETZIN.
2. GARABIO. 3. LOTI. RAI. 4. UJ.
GOITIK BEHERA: 1. ITALIAR.
ODIN. SOKA.
AORTA. BEER. 7. AUKEAK. 8.
LAIAI. 58. 5. II. SENKO. 6.
2. TAOSISTA. 3. ARTI. AZKAR. 4.
EZKER-ESKUIN: 1. IGULI. ETAB.

Iris Mapaly Cárdenas

MIGRATZAILEA



METALGINTZAN BIDEA EGITEN

"Gehienetan negozioak bat edo bi pertsonaren artean sortzen dira. Horregatik, Perun enpresa sortzen hasi ginenean senarrak parte teknikoa erakutsi zidan, eta nik logistika erakutsi nion. Elkarri eskua eman genion bideari elkarrekin ekiteko. Ikastea asko gustatzen zaidanez eta abenturazalea naizenez, gogoz hartu nuen erronka. Iruñera migratu genuenetik ez dugu gurean lan egiteko aukerarik izan, baina metalgintza-ren munduan jarraitu nahi dugu".

"Migratzaileak behartuta gaude zaintza eta garbiketa lanetan aritzera"

Pobrezian dauden pertsonen kontrako gorrotoa ikusgai egiteko 'Aporofobia Stop' antzezlanak sortu dute Paris 365 jantoki solidarioak, Ados Teatroak, Asin Soundek, Bidebitarte kooperatibak eta Arteriak taldeak. Iris Mapaly Cárdenasek, Paris 365 jangelako erabiltzaileak, antzezlanean parte hartu du (Lima, Peru, 1980): "Gu geu izan gara gure istorioaren parte bat kontatzen". Gipuzkoan taularatuko dute abenduan; 11n, Donostian eta 14ean, Erreterian.

OLAIA L. GARAIALDE JOSU SANTESTEBAN

Pobrezian dauden pertsonen kontrako gorrotoa salatzeaz harago doa 'Aporofobia Stop' antzezlanak?

Alde batetik, gizartea sentsibilizatu nahi dugu jendeak ikusteko ez gaudela pobrezia edo bazterkeria egoeran guk nahi dugulako, baizik eta zenbait egoeraren ondorioz. Bestetik, elkarri laguntzeko modu bat da.

Paris 365 jangela solidarioko erabiltzaileen bizipenetan oinarrituta egoteaz gain, zeuek antzeztu duzue; zer gehitzen dio horrek?

Errealismoa eta egia. Esaten digute aktoreak garela, baina ez dugu deus antzeztu; gu geu izan gara gure istorioaren parte bat kontatzen.

Fikzioak badu lekurik antzezlanean?

Ia ez dago fikziorik; esanen nuke %100 erreala dela. Azkenean islatzen duguna da iristean ez dakizula zer egin, nora joan, agian ez duzula hizkuntza ezagutzen. Behartuta etortzen gara, eta behin hemen gau-

dela datorrena onartu behar dugu, norabide berri bat hartu eta txikitik handira gauzak egiten hasi. Bidean duintasun apur bat galtzen dugu.

Nola bizi duzu kultura kontsumitzetik sortzaile izatera pasatzea?

Aldaketa erradikala izan da, ez nekielako asko horren inguruan. Beti kanpotik ikusi ditut musika, zinema eta artea orokorrean. Ausaz hasi naiz antzeztan, eta abenturazalea naizenez, horretan sakondu nahi dut. Bidean jende asko izan dugu, eta irakatsi digute nola kokatu, nola altxatu ahotsa eta nola hartu espazioa oholztan. Dudarik gabe ahal-duntze prozesu bat izan da antzez-lanean parte hartzea.

Antzezlanean esaten duzue egun batetik bestera dena aldatu daitekeela, eta edonor pasa daitekeela egoera zaurgarrian egotera. Hori gertatu zitzaizun zuri?

Hamar urteko ibilbidea zeukan enpresa bat neukan Perun. Bizitza bi-



"Zenbat eta egoera informalagoan egon orduan eta zailagoa da; hortaz, gurekin nahi dutena egiten dute, eta gehiago esplotatzen gaituzte".

deratuta neukan, lana, familia eta etxea nituen, baina 2019an okertu zen dena. Zoritarrez Peruko egoera oso bortitza denez, dena utzi, eta mehatxatuta Iruñera etorri behar izan nintzen, zerotik hasiera.

Zure bizipenetatik zein azpimarratu nahi izan duzue?

Bereziki nabarmendu dugu emakumea naizenez ez didatela pertsona gisa garatzen uzten. Ez daukat nahi bezala ibiltzeko askatasunik. Ni ez naiz bakarrik emakumea, ama eta emaztea; langilea naiz, eta gainera, sektore maskulinizatu batean. Batez ere egoera arrazistak, baztertzailak eta estereotipoekin lotura duten gauzak taularatu ditugu.

Metalgintzan lan egiten zenuen Perun; horretaz lan egitea lortu duzu Nafarroan?

Saiatu naiz, baina oso zaila da, emakumea naizenez beste lanbide batzuetara bideratzen nautelako. Txikiagoa naizenez, eta ez naizenez estereotipo batzuetan sartzen, uste dute ez naizela gai. Uste dut ikusten dutenean nola lan egiten dudan, lan egiteko aukera izanen

dudala. Hala ere, esanen nuke trabarik handiena dokumentazioa dela.

Zaintzari eta garbiketari lotuko lanak eskaintzen dizkizute bereziki?

Bai. Hona iristen garenean migratzaileak behartuta gaude zaintza eta garbiketa lanetan aritzera. Hiru edo lau urte pasa arte ezin zara zure lanbidean aritu. Aurrerago metalgintzan lanean jarraitu nahiko nuke.

Nolakoa zen sektore maskulinizatu batean lan egitea?

Oso zaila eta arrotza. Etengabe sexualizatzen ninduten, saiatzen ziren bersarkatzen, musu bat ematen, beraiekin ateratzeko jartzaten ninduten eta telefonoz mehatxatzen ninduten. Nire lekua aldarrikatu behar izan nuen. Horretarako, hitz egiteko modua aldatu nuen, eta zakarragoa izaten hasi nintzen.

Dokumentazioa aipatu duzu, zein traba dituzue?

Lan egiteko dokumentazioa behar duzu, baina lan egiten ez baduzu ez duzu dokumentaziorik. Kontraesankorra da, eta elkarren artean talka egi-

ten dute. Babes sozialaz gain, lanari lotutakoa dago. Sei hilabetez lan egiten baduzu lortu dezakezu. Nik orain hori lortu dut, baina pasaporteira irautsi da. Zenbat eta egoera informalagoan egon orduan eta zailagoa da; hortaz, gurekin nahi dutena egiten dute, eta gehiago esplotatzen gaituzte.

Laguntza eskatzeak dakarrenaz ere mintzo zarete; nola daramazu hori?

Nik oso gutxitan eskatu dut laguntza, asko kostatzen zidalako, baina oso eskertuta nago Paris 365 jangela solidarioak eskaintzen duen laguntzagatik, elikadura bermatzea oinarritzko behar bat delako.

Jatorrizko herrialdean familia uzteak zer eragiten duen ere taularatu duzue.

Beti esaten dut zailena dela familia urrun egotea. Ama eta alaba han geratu dira, eta duela urte bat senarra eta semea etorri ziren. Lan berriak ikastea eta sistemara egokitzea, horrek dakarren guztiarekin, ez da zaila; mingarria eta zailena familia etxean uztea da. ●

Marianoren futbolsofia

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Badira pertsonaiak, fikziozkoak izan arren, benetakoak diruditenak. Eta bada Mariano Rajoy izeneko gizon bat, benetakoa izan arren, enpeinatzen dena fikziozko pertsonaia balitz bezala agertzen. Moncloa atzean utzi zuenetik fokuetatik aparte samar zebilen, jabetzaren erregistratzaile arrunt bihurtuta. Baina superheroi guztiek moztortzen dituzte beren ahalmenak eguneroko lan gris batekin eta, hala ere, denok dakigu hori ez dela euren benetako bokazioa, gizarte justuago baten alde borrokatzeko daude mundu honetan. Rajoyren kasuan berriz, iruditzen zait diferentea dela unibertsoak eman zion misioa: gu dibertitzeko jaio zen. Eta agian bizitzari buruzko lezio inportante batzuk erakusteko (edo agian ez).

Kirol-zutabegile lanetan berragertu da hedabide digital kristau kasik ezezagun batean. Qatarreko gizonezkoen munduko futbol txapelketan Espainiako selekzioak egiten dituenak eta ez dituenak aztertzen ari da eta, aitortzen dut, testu horiekin zeharo engantxatuta nabil –bakoitzak bere tarak ditu, aizue–. A ze bidaia lagunok: bat leitzen hasi, eta hirugarren lerrorako zure garuneko ohiko lokutorea errenditzea lortzen du. Beste ahots batek hartzen du mikroa: Mariano Rajoy hasten da zure buru barruan hizketan, gaztelaniaz inoiz ahoskatu diren ese umelnekin kaskezurreko paretak blaitzen.

47 milioi pertsonaren patua bere eskuetan izan zuen gizon honen *psike*-an murgiltzeko aukera paregabea ere badira. Tipo korapilatsua izateko fama dauka, baina hiru artikulu irakurrita, niri behintzat nahiko garbi geratu zait M. Rajoyk badakiela zertan ari den: futbolaren aitzakian, modernitatearen krisiari erantzunak bilatzen. Ira-



Mariano Rajoy, Espainiako Gobernuko presidente ohia, kirol-zutabegile hasi da

ganeko ziurtasun ideologiko trinkoak azukre koskorrak bezala desegiten ari diren garaiotan, berak badu mezu bat: “Alemania Alemania da”. Alegia, etengabe aldatzen ari den mundu honetan, oraindik iraunkorrak diren gauzak geratzen zaizkigu; beraz, ez gaitezen nerbiosoegi jarri –garbi geratu ez bada, ideia berretsi du, gainera: “Esan nuen Alemania Alemania zela, eta nire us-tez Alemaniak arrazoia eman dit”; eta handik egun batzuetara: “Alemania Alemania da, kanporatu badute ere”–.

Baina, era berean, kontingentziaz beteriko lurretan dabilela badaki Marianok: “Momentuz final-zortzirenetan gaude eta komeni da jakitea non gauden zehazki”. Axaleko irakurketa egiten duenak seinالاتu dezake esaldiaren barne-kontraesana –konpetizioaren ze fasetan dauden esan ondoren, zertara dator non dauden zehaztu

behar hori?–, baina berriz ere, Rajoyk badauka listomariak harri eta belarri uzteko moduko arrazoi bat patrikan, Espainiaren aurkari posibleak zerrendatu ondoren ebazpen hau egin baitu: “Zein da errazena edo zailena? Auskalo, baina gauzak diren bezala dira”.

Dudaz beteriko etorkizunaren aurrean, ziurtasun ez erabat ziurrak eskaintzen dizkigu pentsalari galiziarak, Fraga bezala zingulu-zangulu dabilzanak, baina zutik halere. Eta beti du lagun *zeitgeist*-aren kontrako jarrerara: “Berdin da, baikor izan behar dugu, beste ezer izateak ez duelako ezertxotarako balio”. Gorde ideia hori. Eta baloia kontrarioen zelaian baldin badago, golen bat jasotzeko arriskua txikiagoa dela beti. Askoz gehiago ere ez da behar, antza, bizitza honetan zerbait izateko. Edo agian bai. Nik zer dakit, *it's very difficult todo esto*. ●



Kamiseta txuria
Lurra herriari deika
19,5 €



Kamiseta beltza
Lurra herriari deika
19,5 €



Kamiseta gris iluna
Inor ez da ilegala
17 €



Kamiseta gris argia
Inor ez da ilegala
17 €



Kaputxadun jertsea
Inor ez da ilegala
32 €



Sendabelar baratzea
Garbiñe Larrea
14 €



Gure heroiak
Axier Lopez
20 €



Jertsea
Inor ez da ilegala
28 €



Sendabelarrek dakitena
Garbiñe Larrea
25 €



Ilargia eta landareak
Urteko lanen agenda 2023
14 €



Egutegia 2023
Egunero efemeride bat
10 €



Bizi Baratzea
Jakoba Errekondo
23 €

Nazio Batuak Euskadin

Local 2030 Koalizioaren mundu
mailako egoitza Bilbon



Euskadi Nazio Batuen 2030 Agendarekin

